

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GORPUTZ OSASUNTSUAREN IRUDITEGIA LEHEN HEZKUNTZAN. BENETAZKO EREDUEN BILA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Perez de Pipaon Exposito, Galder.

ZUZENDARIA: Gutierrez Ajamil, Estibaliz.

2021eko ekaina

LABURPENA: Lan honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, iragarkietan agertutako estereotipo fisikoak Lehen Hezkuntzako ikasleen gorputz osasuntsuarekiko duten iruditegian daukan eragina ikertzea, eta bestetik, umeez kirolaren estereotipo fisikoen inguruan pentsamendu kritikoa garatu dezaten, diziplinarteko esku-hartzea diseinatzea eta aurrera eramatea, horren emaitzen analisia eginez. Gasteizko Zabalana ikastolako 6. mailako 21 ikasleekin egin da ikerketa, lehenengo fasean parte-hartzaileen gaiarekiko zuten aurreiritziak jasoz, eta bigarren fasean proiektu didaktiko bat gauzatuz Gorputz Hezkuntzako, Artearen Hezkuntzako eta Tutoretzako ikasgaien koordinazioaren bidez. Eskolan egindako saio praktikoetan ikasleek iragarkien estereotipo fisikoak identifikatzen ikasi dute, eta osasun-eredu ez normatiboak aztertu dituzte, proiektuari amaiera emanez parte-hartzaileek sortutako kontrapublicitate kanpaina batekin. Emaitzek argitu duten bezala, umeez oso errotuak dituzte kanonak betetzen dituzten gorputzen irudiak eta osasuna ezaugarri estetikoekin erlazionatzen dute, generoen artean desberdintasunak adieraziz. Ikerketa honen bidez ere gure ikusizko kulturaren sintoma diren beste hainbat ondorio identifikatu dira, adibidez emakume kirolari erreferente eza, ikasleek ezagutzen dituzten gutxiak erritmozko jarduerak edo kirol artistikoak praktikatzen dituztelarik. Ikerketa honekin lortutako emaitzen analisia eginda, ikusi da diziplinartekotasuna pentsamendu kritikoa garatzeko metodologia egokia izan daitekeela, ikasleek hiru adierazpen-moten bidez (hitzezkoa, gorputzezkoa eta grafikoa) baliatu direlako beraien iritzia emateko eta proposatutako gaiak hausnartzeko. Ondorioz, ikasleriak gorputz osasuntsuaren inguruko iruditegi aniztasuna zabaltzeko frogatu da, ikusizko kultura eta publicitateak eskaintzen dituen mezuei aurre egiteko gaitasunak trebatuz.

Hitz gakoak: Gorputz osasuntsua, iruditegia, estereotipoak, diziplinartekotasuna.

RESUMEN: Este trabajo tiene dos objetivos principales: por un lado, investigar el efecto que tienen los estereotipos publicitarios sobre cuerpos saludables en el imaginario de alumnos de Educación Primaria, y, por otro lado, analizar los resultados de una intervención interdisciplinar diseñada y llevada a cabo para que los/as niños/as desarrollen el pensamiento crítico respecto a los estereotipos físicos del deporte. La investigación se ha realizado con 21 alumnos/as de 6º curso del colegio de Zabalana en Gasteiz, recogiendo así en la primera fase los prejuicios de los/as participantes respecto al tema tratado, y en la segunda fase se desarrolla un proyecto didáctico a través de la coordinación de las asignaturas de Educación Física, Educación Artística y Tutoría. En las sesiones prácticas realizadas en la escuela, los alumnos/as han aprendido a identificar los estereotipos físicos de los anuncios, además de examinar modelos de salud no normativos y crear una contra-

campaña publicitaria dando así cierre al proyecto. Tal como muestran los resultados, los/as niños/as tienen muy arraigada una imagen corporal que cumple con los cánones publicitarios y relacionan la salud con características puramente estéticas, marcando diferencias por género. Mediante esta investigación también se han podido identificar varias conclusiones que son síntoma de nuestra cultura visual, por ejemplo, la falta de mujeres deportistas referentes, ya que las pocas que conocen los/as alumnos/as practican deportes artísticos o actividades rítmicas. Analizando los resultados obtenidos en este estudio, se ha comprobado que la interdisciplinariedad puede ser una metodología válida para desarrollar el pensamiento crítico, ya que los/as alumnos/as han podido dar su opinión y reflexionar sobre el tema tratado a partir de tres modos de expresión (escrita, corporal y gráfica). Por consiguiente, se ha demostrado que el alumnado ha ampliado la diversidad de su imaginario respecto al cuerpo saludable, pudiendo así desarrollar habilidades que les permitan hacer frente a los mensajes que muestran tanto la publicidad como la cultura visual.

Palabras clave: Cuerpo saludable, imaginario, estereotipos, interdisciplinariedad.

ABSTRACT: This paper has two main objectives: on one hand, researching the impact on elementary students of physical stereotypes found in advertisements and the way they imagine a healthy body. On the other hand, promoting the students critical thinking on physical stereotypes related to sport, and designing and accomplishing an interdisciplinary intervention by analysing the results. The research has been conducted on 21 students from 6th grade of the Zabalgana school in Vitoria-Gasteiz. In the first phase, we have gathered information on the prejudices that the participants have. On the second phase, we have implemented a didactic project involving physical and art education, and tutorship sessions. During these practical lessons, students have learnt how to identify the physical stereotypes in advertisements and have analysed non-normative health standards. Finally, they have created a campaign against this type of publicity. The results show us that the standards of a body image are deeply rooted in these children and that they relate health to beauty canons, which clearly differ between genders. We have also been allowed to identify several consequences of our culture, such as the low number of sportswomen that are known. In addition, we could observe that interdisciplinarity can be a suitable method to promote critical thinking among students. Consequently, it has been shown that students have expanded their mind on the diversity surrounding health body, teaching them how to deal with messages coming from visual culture and advertisements.

Key words: healthy body, image, stereotypes, interdisciplinarity.

AURKIBIDEA

1- Justifikazioa	4
2- Sarrera	6
3- Marko teorikoa	8
3.1- Gorputz osasuntsuaren irudia gaur egungo gizartean	8
3.1.1- Gorputz motak edo irudi fisikoaren inguruko teoriak	8
3.1.2- Gorputz eta genero estereotipoak ikusizko kulturaren	10
3.2- Gorputz osasuntsuaren heziketa	12
3.2.1- Gorputz osasuntsuaren ulerkuntza LHko curriculumean	12
3.2.2- Irudi fisikoaren lanketa Gorputz Hezkuntzan	14
3.3- Gorputz osasuntsuaren irudia Artearen Hezkuntzan	17
3.3.1- Artearen Hezkuntzaren inguruko joera garaikideak	17
3.3.2- Irudi fisikoaren lanketa Ikusizko Kulturaren Hezkuntzaren bidez	18
4- Helburuak	20
5- Metodoa	21
5.1- Parte-hartzaileak	21
5.2- Prozedura	22
5.3- Ikerketa tresnak	22
5.4- Eraitzen analisia	24
6- Emtzak	25
6.1- Aurreiritzien analisia	25
6.2- Gorputz osasuntsuari buruzko pentsamendu kritikoaren garapenaren analisia	27
7- Ondorioak	31
8- Hobekuntza proposamenak	35
9- Bibliografia	37
Eranskinak	41

1- JUSTIFIKAZIOA

Azken 6 urteetan zehar Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietan (JFKZ) eta Lehen Hezkuntzako gradu bikoitza egin dut Gorputz Hezkuntzako irakaslea izateko helburuarekin. Horretaz gain, betidanik egin dut lan umeekin aisialdian begirale, koordinatzaile eta zuzendari lanetan, bai modu profesionalean zein boluntarioan. Horrek guztiak Hezkuntzaren ikuspegi orokor eta "jarrera ideologiko" bat garatzeko balio izan zait, unibertsitatean jasotako oinarri akademikoa umeek eman didaten esperientziarekin aberasteko aukera izan dudalako.

Formakuntza eta lan esperientziaz gain, alderdi pertsonalak ere eragin dit nire garapen horretan, izan ere, kirolari oso lotua egon naiz betidanik, batez ere txirrindularitzan aritu naizelako era semi-profesionalean. Hala ere, ikuspuntu lehiakorra guztiz deuseztatu izan dut beti, inoiz ez bait ditut motibazio berezirik izan txapelketengatik. Izan ere, bizi garen gizarte indibidualista, norbanakoari bideratua eta patriarkal honetan nahiko errotuak ditugu ohitura hauek eta txikitatik horren ondorioak pairatu izan ditut. Hori dela eta, nire karrera profesionala hezkuntza eta jarduera fisikoaren aldetik birbideratzeko GrAL honek defendatzen dituen osasuna eta ongizateak egin nahi dut lan.

Mutil bezala futbola ez den kirola aukeratzegatik nire inguruko umeen gustu deportibo berdinak ez nituela esan nezake. Hala ere, kirolari alternatiboa izan arren, futbolaria eta saskibaloia gertatzen zen bezala, banituen kirolari ospetsuen ereduak, baina hauek soilik gizon gazteak ziren. Horregatik, etorkizuneko Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala bestelako gorputzak zein kirolari motak erakutsi nahi dizkiet nire ikasleei. Kontuan izan behar dugu, nahiz eta egokitutako kirola zein kirol femeninoa azken urteetan gorakada garrantzitsua esperimentatu izan duen, hauen eredu mordoa falta zaizkigula aniztasunari begiak ireki ahal izateko.

Nire Gorputz Hezkuntzako alderdi ideologikoarekin jarraituz, umeen hezitzailea izan naizen heinean, garrantzi berezia eman diot umeen pentsamendu kritikoaren garapenari, honek ahalbidetzen digulako aurrera egitea gizarteak inposatzen dizkigun ideiei, batez ere estereotipoei, hau da, aske izaten eta sentiarazten gaitu. Horregatik, haurrentzat prestatu ditudan jarduera askotan bai jolas-joko forman zein tailer forman, estereotipoak landu izan ditugu udalekuetan, hezkuntza ez formalaren boterea baliatuz.

Pentsamendu kritikoa bizitzaren arlo guztietan landu beharko genuke, ikasleak pertsona independenteak izateko eta ez subjektu alienatuak. Baina bereziki haurrei bere egunerokotasunean jasotzen duten informazio arriskuarekin aurre egiteko baliabideak eman beharko genieke. Horretarako, ezinbestekoa da lehenengo umeen ikuspuntuak eta iritziak

ezagutzea, behar dituzten laguntzak eskaini ahal izateko. Nire kasuan, hainbeste egun ume talde berdinarekin pasatzea praktketan, ludotekan edo kanpamenduetan hauek hobeto ezagutzea ahalbidetu dit. Horrela, gai izan naiz haurren joera batzuk autemateko, besteak beste, hauek daukaten gorputzaren iruditegi estereotipatua. Komunikabideetan agertzen diren ereduak umeengan eragin handia dutela ikusi izan dut, eta ondorioz haurrek txikitatik beraien eta inguruko gorputzak epaitzen dituzte pantailetatik jasotako irizpideekin konparatuz. Gainera, JFKZ eta LHko praktikaldietan ohartu naiz ikasleek beraien autokontzeptu fisikoa oso distortsionatua daukatela beraiekin konpartitu izan ditudan elkarrizketetan zein Gorputz Hezkuntzako saioetan.

Horri aurre egiteko hezkuntzak erronka handia dauka gaur egun, eta irakasgai desberdinen artean baliabideak partekatzea konponbide bat izan daitekeela uste dut. Adibidez, Artearen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntzaren ikasgaiak nire helburuak lortzeko hainbat irizpide eman dizkit, horien artean gure gizartean erabiltzen diren irudien analisi kritikoa egiteko estrategiak. Halaber, emakume artista garaikide asko deskubritu izan ditud, eredu izan daitezkeenak ikasleentzat, beraien obren bidez bidezkoak ez diren egoerei salaketa eta aldarrikapen bisualak egiten dizkiotelako. Eredu iraultzaile hauei esker, gizartearen iruditegi estereotipatu eta patriarkala deseraikitzea posible dela ikusi dut, originaltasunetik eta alfabetizazio bisualetik abiatuta, bide hau jarraitzeko interes handia piztu zidatelarik.

Honen guztiagatik, eta nire jatorrien erraiak atzean utzi nahi izan gabe, proiektu didaktiko bat diseinatu eta frogatu nahi izan dut GrALean, nire irakasle-balore guztiak bateratuz: ikasleen iritziak eta ikuspuntuak entzutea, osasuna eta ongizatea sustatzea, jarduera lehiakorren ordeztaldea bultzatzea, pentsamendu kritikoa trebatzea eta aurreiritzi estereotipatuen aurrean ikaslegoaren jarrera iraultzailea eta aniztasuna bermatzea. Gainera, egindako esku-hartzea jolasaren kutsuaz zipriztindua egon behar zela argi izan dut beti, gizartetxeetan eta udalekutan ikasi dudana lelo adierazgarriena, "jolastea heztea dela eta hezi, zein hazi ahal garela jolasten" izan delako, beraz, ezin da inoiz jolasteari utzi.

2- SARRERA

“Iruditegi” kontzeptua “irudimena”-rekin zeharo lotuta dago. Modu erromantiko batean, esan daiteke gure iruditegia norberak asmatu edo sortutako zerbait dela, baina honi buruz sakontzen hasten garen bezain pronto, gure inguruneke ikusizko kulturak iruditegi horren eragile nagusia dela ulertuko dugu. Gizarte bakoitzak baditu bere lengoia eta kode bisualak, kulturalki konpartitzen direnak, eta gurea, batez ere gaur egungoa, pantailengatik oso baldintzatuta dago. Hezkuntzan lan egiten dugunok jakin badakigu mugikorrek, telebistak, sare sozialak, bideo jokoak, etab. gure umeen egunerokotasunaren parte direla, eta horregatik haien hizkuntzak ezagutu eta ulertzeko prest egon behar gara. Arrazoi berdinegatik, ikusizko kulturaren erabileraren hezkuntza bat beharrezkoa egiten da gaur egun, gure ikasleek baliabide eta informazio gutxi baitituzte pantailetatik jasotzen dituzten mezuei aurre egiteko ikuspuntu kritiko batetatik. Denok, txikiak garenetik, irudien kontsumitzaile garen heinean, komunikabideengandik informazio handia jasotzen dugu, eta horren atzean dauden mezu inplizitu zein esplizituak barneratzen ditugu ohartu gabe. Izan ere, frogatuta dago pertsona bakoitzak egunean bataz besteko 3.000 eta 5.000 irudien artean jasotzen dituela eta gehienek erreakzio kontsumista bat eragitea dute helburu hainbat estrategia bisualen bidez (Dominguez, 2016).

Beraz, adierazgarria da ikusle rola betetzen dugun ordu kopurua bizitzan zehar, eta nola irudiak gure jokaeretan eragiten duten. Ez dugu ahaztu behar hedabideen jabe diren enpresa pribatuak beraien interes ekonomikoak eta sozialak lortzeko erabiltzen dutela ikusizko lengoia. Izan ere, telebista eta sare sozialetatik heltzen zaigun informazioaren erabilera gidatzen dutenak familia aberatsak, bankuak eta multinazionalak dira, *Grupo Prisa* izan daitekeen bezala. Hauek jendartean pentsamendu bakarra bultzatzeko nahia daukate, bizi garen mundu kapitalista betikotzeko eta naturalak ez diren gauzak (gizartearen kanonak, adibidez), modu naturalean barnerarazteko (Terrones, 2018). Talde ekonomista hauen erraminta da publizitatea, pertsonengan daukan eragin handiaz baliatzen baitira beraien produktuak zein bestelako helburuak saltzeko. Horietako estrategietako bat da pertsonen zibilizazio okzidentalean erroturik dauden estereotipoak bultzatzea, norbanakoaren interesak gidatuz nahi bezala, kontsumitzailea “gizartearen parte” sentiarazteko.

Esan bezala, egungo kanonak irudiekin indartzen dira askotan eta mundu mailako merkatuek honetaz probesten dira, iragarkietan famatuak diren pertsonak jarriz (adibidez, punta-puntako kirolariak) modelo-lanetan, bilatzen dituzten kanonekin bat datozeleko: fama, dirua, heteronormatibitatea, arrakasta, gorputz landuak... Honek guztiak, jendartean gorputzaren irudiaren distortsio bat eragiten du eta Lehen Hezkuntzako ikasleek ez dira salbuespen bat izango. Hortaz, ume eta nerabeek ikusizko kulturatik jasotzen duten

informazio bonbardaketaren aurrean askotan defentsarik gabe aurkitu daitezke eta estereotipoengatik baldintzatuak izateko arrisku larrian daude.

Hala bederen, urte sentsible horietan ume askok beraien irudi fisikoaz kezkatzen hasiko dira eta are eta gehiago urteak bete ahala. Maiztasun handiz gertatzen den bezala, ikusizko kulturaren eraginez, pertsonak nahasten dute osasuntsu egotea estetika zaintzearekin, hau da, elikaduraren, pisuaren eta gorputz irudiaren arteko erlazio bat sortuz (Civieta, 2020). Tamalez, ume eta gazteek ere beraien konfiantza urratua ikusten dute gorputz idealizatua lortu nahian sufritutako frustrazioa dela eta, horregatik nerabezaroan elikadura-portaeraren nahasmenduak garatzea gero eta ohikoagoa da. Ondorioz, askotan osasun fisikoa eta psikologikoa kaltetua ikusten da, gaixotasun kroniko bat eraginez. Izan ere, ikerketa batek argitzen duen bezala, 2020ko urtean estatu espainolean 12 eta 25 urte bitarteko populazioaren %5a elikadura-nahasmenduen bat sufritzen du (Oliver, 2020). Beraz, komunikabideek eta ikusizko kulturak gizartean eragiten duen paradoxa identifikatu dezakegu: gorputz artifizialak erakusten dizkigute osasunaren eredu gisa, eta gero gizarteak hauek idealizatu eta imitatu nahi izanagatik anorexia eta bigorexia moduko gaitzak pairatzen ditu, osasuna galduz.

Haurtzarotik bertatik eta etorkizunari begira, bizitza osorako kaltea izan dezakeen gai bat izanik, bere biziko garrantzia du problematika hau abordatzea hezkuntzatik, prebentzio lan bat eginez. Ikerketa honen baitan, ohikoa den genero estereotipoen ikuspegiak gain, irudi fisikoa abordatzearen beharra ikusi da kirol iragarkietan erabiltzen diren irudi estereotipatuek umeengan daukaten eragin sakonari aurre egiteko. Ikusi den bezala komunikabideek erabiltzen duten irudi fisikoaren eredu alderdi eta eragile asko ditu: ekonomikoak, boterezkoak, irudiaren atzetik dagoen industriakoak, osasun eta kirol munduarenak... Hortaz, lanketa hau ezin da ikasgai edo ezagupen arlo bakarrera mugatu, baizik eta diziplinarteko helburu eta metodoak erabili beharko litzateke ikasleek publizitatearen aurreko ikuspuntu kritiko bat garatu dezaten.

Hurrengo orrietan azalduko den ikerketa asmo horrekin burutu da. Ikusizko kulturak eraiki eta mantendutako estereotipoak suntsitzeko modurik eraginkorrena ikusizko kulturak berak ematen dituen baliabideak baitira. Hori dela eta, irudien manipulazioa eta hauek areagotzen dituzten gizarte kanonetan sakonduko da eskola bateko ikasleekin. Alde batetik, teknika plastiko ezberdinak proposatuko dira hausnarketarako tresna bezala eta kontzientzia eragiteko. Bestalde, jarduera motorrak baliatuko dira eredu ez normatiboen zabalkuntza eta barneraketa lortzeko. Azken finean, diziplinarteko metodologia aldarrikatu nahi da lan honen bitartez, erraminta hauen gaitasuna estereotipo fisiko eta honen inguruan eraikitako irudia desegiteko pentsamendu kritikoaren garapenetik abiatuz.

3- MARKO TEORIKOA

Atal honetan zehar ikasleekin aurrera eramandako esku-hartzea diseinatzeko erabili izan diren oinarri teorikoak azalduko dira, hiru ataletan bereiztuta. Lehenengo, gure gizarteak duen “gorputz osasuntsuaren irudia” aztertuko da, horri buruzko teoria objektibo bat (somatotipoak) arakatzuz, ondoren ikusizko kulturak erakusten dizkigun gorputzen irudi estereotipatuak aztertzeko. Bigarren puntuan gai honekiko Gorpuz Hezkuntzaren erantzukizuna ikertuko da, alde batetik Heziberriko curriculumak diona identifikatuz eta bestetik, GHko material didaktikoetako estereotipoen analisisa egin da eta eskola desberdinetan aurrera eraman diren proiektu didaktiko berritzaileak bilatu dira eredu moduan. Amaitzeko, GrAL honen gaia lantzeko Artearen Hezkuntzak eskaintzen dizkigun baliabideak azalduko dira, bereziki sakonduz ikusizko kulturaren hezkuntza garaikidean.

3.1- Gorputz osasuntsuaren irudia gaur egungo gizartean

3.1.1- Gorputz motak edo irudi fisikoaren inguruko teoriak

Ikerketa honen baitan, “gorputz osasuntsuaren irudia”-ri buruz hitz egiterakoan ahalik eta objektiboen izateko asmoarekin, irudi fisikoa neurtzeko sistema estandarizatu bat erabili nahi izan da, eta horretarako duela hamarkada batzuk sortutako “somatotipoen teorian” oinarritu gara. Sheldon 1940. urtean gorputz forma eta konposizioa neurtzeko eratutako sistema honek, hiru gorputz mota sailkatzen ditu bere egitura fisikoaren arabera. Somatotipoen teoriak urteetan zehar errebisioak eta eguneraketak jasan izan ditu, besteak beste Parnellen eskutik (1958) baina batez ere esanguratsuentzat jotzen dena eta gaur egun erabili dena, Barbara Heath eta Lindsay Carterrek (1967) egin zutena dela esan daiteke. Somatotipoa, Sheldonen ustetan, alderdi finko genetiko bat zen, aldaezina eta berezkoa, Heath eta Carterrek berriz hainbat faktoreen arabera aldakorrek izatea defendatzen zuten, besteak beste hazkuntza, ariketa kopurua, elikadura eta abar (Carter, 1996).

Subjektuaren ezaugarriak hiru azpitaldeen arabera neurtzen dira formula matematiko batzuen bidez (0,5 eta 7,5 bitarteko puntuaketa bana emanez), eta horren interpretazioak subjektuaren gorputzaren osaketa esango liguke. Somatotipoen teorian desberdintzen diren 3 azpitaldeak hurrengo hauek dira: *Gorputz Ektomorfoak*, gorputz meheei erreferentzia egiten die, luzeak eta definitu gabeko gihardura dutenak; *gorputz Endomorfoak*, gorputz forma borobilduak eta adipositatea duten gorputzak; eta azkenik, *gorputz Mesomorfoak*, gihardura handiko eta ongi definitutako gorputz sendoak izaten direnak (Martinez-Sanz et al., 2011) (Ikusi 10.1. eranskina). Hala ere, sailkapen honetan gorputz mota gehiago berezi daitezke, izan ere, aipatutako puntuaketen eta formulen bidez hamabi gorputz forma

ezberdin topatu genezake hiru azpitaldeetako bat besteei gailentzen den arabera edo formulen emaitzak oso parekoak diren arabera besteak beste (Cabañas et al., 2009). Honek guztiak, gorputzen interpretazio objektiboa egitea sailtzen duenez, hiru azpi talde orokorrekin lan egitea komeni da, batez ere, irudien bidezko pertzepzioa landu nahi denean, ikerketa honen kasuan bezala.

Ikerkuntza munduan, somatotipo hauek normalean kirolari ezberdinen gaitasunen neurketak egiteko, gizon eta emakume kirolarien arteko ezberdintasun erlatiboa ikusteko edo entrenamenduan adinak gorputzean duen eragina aztertzeko erabiltzen dira (Carter 1996), baina populazio orokorrean zein pertsona sedentarioetan erabili daitekeela ere ikusi izan da azken aldiko ikerketen bidez. Ohikoena da hiru gorputz-somatotipoetatik soilik mesomorfoa kirolaren praktikarekin lotzea, giharduraren definizioa eta indarragatik, Valdes-ek (2015) adierazten duenez, mesomorfoak kirol praktika gutxirekin parametro fisikoetan azkar kokatuko dira, endomorfoa ere gorputz osasuntsuarekin erlazionatzen da, gantz falta daukalako eta hau metatzeko zailtasunak izango dituztelako (Valdes, 2015). Kontran, gorputz endomorfoa izan liteke osasun ezarekin lotu daitekeen gorputza, gantza pilatzeko eta pisua irabazteko duten joera dela eta.

Argi izan behar da somatotipoen teoriak ez duela finkatzen gorputz osasuntsu batek izan behar duen forma, edozein somatotipo osasuntsu izan bait daiteke, azken finean, gorputzaren konfigurazio morfologikoa aldakorra delako berezko metabolismoaren, jarraitutako dietaren, kirol praktikaren edota pertsonaren adinaren arabera (Silleros, 2005). Beraz, orokorrean pentsatzen denaren kontra, kirolari orok gorputz osasuntsua izango du edozein somatotipo duelarik, izan ere, kirol praktika askorentzat ohikoa den somatotipo bat egoten da, endomorfoak barne.

Urteak pasa ahala, industria desberdinen interesengatik ahaleginak egin dira somatotipoen irudi objektiboa izan beharko zen hori eraldatzeko eta estereotipatzeko, izan ere, 10.2. eranskinean ikusi daitekeen bezala, interneteko irudien bilatzailean somatotipoekin zerikusia daukaten kontzeptuak bilatuz gero, sistema honen objektibotasunetik oso aldenduta dauden argazkiak eta gorputzak erakusten dizkigu "gorputz osasuntsu" horren estereotipoaren indarra argi utziz. Modu berean, somatotipoen irudia, bereziki nesken ereduak marrazten direnean, sexualizatu egin da, adibidez, 10.3. eranskinean ikusten den bezala, non gizonen postura zurruna da eta emakumeena berriz, postura edo konnotazio sexuala dutelarik. Beraz, ondorioztatu dezakegu somatotipoen teoria irudi fisikoa modu objektiboan neurtzeko erabilgarria izan arren, gaur egun horren atzean interes ekonomikoak eta marketineko helburuak daudela argi ikusten da, enpresek gorputz osasuntsuaren irudi sexualizatu eta estereotipatuaz baliatzen bait dira beraien produktuak saltzeko helburuarekin.

3.1.2- Gorputz eta genero estereotipoak ikusizko kulturaren

Somatotipoen eskema grafikoetan egin den estereotipazioa ez da gertaera isolatua, izan ere, gure eguneroko bizitzan komunikabideak edota ikusizko kultura oso hedabide instrumentalizatua bait da marketin-estrategiak aurrera eraman ahal izateko. Denok dakigun moduan, errealitatean ikus daitezkeen gorputzak eta komunikabideetan erakusten dizkiguten gorputzak ez datoz bat, azken hauek eredu estereotipatu baten menpe bait daude. Dominguez-en (2021) hitzetan, estereotipoak sortzen dira heredatutako kode bisualen errepikapenagatik eta informazio anitza eta konplexua sinplifikatzeko beharragatik (73.or). Horrela sortzen dira errepresentazio estereotipatuak, normalean hedabideen bidez zabaltzen direnak eta kultura edo gizarte batek onartu dituenak, gizataldeen arteko desberdintasunak edo ezaugarriak areagotzen, epaitzen, desitxuratzen eta egonkortzen dituztenak (Dominguez, 2021), horregatik ikerketa honetan gorputz osasuntsuaren irudi estereotipatuan sakondu nahi izan da, komunikabideek eta ikusizko kulturak erabiltzen dituzten estrategien eta ereduaren analisia eginez.

Adibidez, kirol-iragarkiak aztertzen dituen hainbat ikerketak gorputz idealizatuaren sustapena egiten dela ondorioztatu dute. Hauen artean, Cáceres eta Diaz-ek (2008) iragarkien modeloen analisia egin zuten, emakumeen estereotipo zehatz bat identifikatuz: azal txurikoa, gaztea, gorputz lirainekoa eta markarik ezta defekturik gabekoa. Ikertzaile hauek ikusi duten bezala, iragarkietan sustatzen den emakumearen irudi idealizatuak ez du bat egiten estatu espainolean dagoen emakumeen gorputz errealaren batezbestekoarekin, azken honek somatotipo endomorfo eta forma borobilduna bait du. Ildo beretik Vega, Barredo, eta Merchane (2019) modako 5 aldizkarien analisia egin zuten, 1520 irudiko laginarekin, eta honen emaitzetan ikusi ahal izan dira patroi mugatu eta zehatz batzuk erabiltzen direla emakumeak errepresentatzeko, arropa edo modako objektuak saltzeko helburu bakarrarekin. Autore hauek dioten iragarkietako emakumearen kanona 3 parametro fisiko betetzen dituela: 36ko taila izatea gehienez, 1,70ko altuera gutxienez eta somatotipo ektomorfoa.

Ondorioz, nesken eredu irreal honen bitartez publizitateak ez da soilik irudi fisiko estereotipatu bat inposatzen ari, baizik eta jarrera mota batzuk sustatzen, hau da, kirol-markak kontsumismoa bultzatzeaz gain emakumeen frustrazioa eta idealizazio ezinezkoak areagotzen dituzte, soilik benetan modelo profesionalak lortu ditzaketen ezaugarri fisikoak erakutsiz. Cáceres eta Diaz-en (2008) ustetan “Lolita” estereotipoa goraiatzeko da emakumezkoen publizitatean, hau da, “beti gazte dena, inozoa eta perbertsoa, modu honetan, guztiz baztertzen dute heldutasun kronologikoa eta adimen heldutasuna, gorputz aniztasuna suntsituz, autoestimua apurtuz eta autokontzeptua eta auto-onarpena lurperatuz”

(324. or). Gainera, autore hauek iragarkietako kirolarien estereotipoetan sakonduz, kontzeptu berri bat proposatzen dute: “sporno”, gero eta zabalduago dagoena kirola eta pornografiaren edo erotismoaren batuketari erreferentzia egiteko. Gaur egungo kirolari ospetsuak (emakumeak hein batean, gizonak ere badaude) ahalik eta arropa gutxienekin agertzen zaizkigu merkatuaren zerbitzura jarriz gorputz erotizatu eta pose sentsualekin eta aurreko puntuekin bat datozen gorputz motak izanda.

Beste autore batzuk kirol marketako iragarkien analisia egin dute generoaren ikuspegitik. Hauen artean Gilek (2019) ondorioztatzen du Adidas moduko markak emakumeen moda saltzeko modeloak erabiltzen dituela eta horretaz gain, hauek bakarka agertzen direla argazkietan, indibidualizazioa sustatuz jakin izan da. Gizonen kasuan berriz, Ronaldo eta Messi moduko ospe mundialeko kirolariak erabiltzen dituzte iragarkietan modelo gisa, eta bultzatzen diren kirol-estereotipoak gaztetasuna, dibertsioa, kontsumoa, gizontasuna eta ospea bestea beste izaten dira (Chamorrok eta Tapia, 2015; Gil, 2019). Kirol marken estereotipoak eragin zuzena dute umeei erabiltzen dituzten jostailuen iragarkietan, hurrek estereotipo berdina jasotzen bait dute, bai koloreekin zerikusia dutenak zein, genero rol tradizionalekin bat egiten dutenak edo mutilen jolas indibidualtasunari so egiten dioten irudiak. Hala ere, nabaria da gero eta jolas mistoago errepresentatzen ari direla iragarki hauetan hobekuntza bat adieraziz (Alvariñas-Villaverde eta Lopez-Villar, 2018).

Gutxinaka estereotipoen kontrako ahaleginak egiten ari dira publizitatearen industrian. Gilek (2019) dio gero eta protagonismo gehiago hartzen doala emakume-kirolariaren eredu ikusizko kulturaren, baina oraindik ez dagoela gizonek duten aitorpenaren mailatik gertu. Horregatik, iragarkietan, nahiz eta emakumeen perfila indartsua eta enpoderatua izatea gero eta zabalduagoa dagoen, neska nerabeei “seduzitzeko” arropa motza (zilborra erakusten duten horietakoak) saltzen jarraitzen diete eta benetan modu erosoan jantzi nahi diren emakumeak inbizibilizatu. Azkenaldian, nabaritu egin da urteetan kirol marka batzuetan, kritika askoren helburu izan ostean, badirudiela feminismoaren olatura igo nahi izan dela modu oportunistan batean. Adibidez, kirolezko web orrialde batzuetan “taila handiko emakumeentzat” edo “curvy” eufemismoa erabiliz, hauentzako espazio segregatu batean uzten dute. Gainera, orokorrean iragarki hauen ereduak ez dira kirolariak, baizik eta modeloak, eta horretaz gain, taila hauek estuegiak edo txikiegiak izaten jarraitzen dute, kanpainakoak benetan emakume errealak ez direla erakutsiz (Gil, 2019; Redaccion Barcelona, 2020).

Publizitatea ez ezik, kirol-albistegiak informazio honen kontsumitzaile amaigabe batera ailegatzeko gaitasuna dute eta gure gizartearen gain influentzia izugarria daukela jakin badakigu, hori dela eta, kirolaren inguruko albistegietan erabiltzen diren irudiak ere botere

handia daukate ikusleengan. Hedabide hau oso baliabide aproposa izan litzatekeen gorputz osasuntsuari buruzko ikusizko kulturaren hezteko, baina tamalez, ikuspuntu androzentrista heredatu bati egozten zaio gaur egungo kirol-albistegietan erabiltzen den hizkuntza mota, oraindik maskulinitate kutsu nabarmena duena eta betiko estereotipoetan erortzen dena, eta ondorioz, kirolari emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun-arrakala betikotzen dela argitzen digu Rojas-ek (2010). Ikertzaile honek dioen moduan, emakume kirolariak eta hauek praktikaturako kirolen inbizibilizazioa ematen da eta ehuneko oso txikia suposatzen duela gizonen kirolarekin (batez ere futbola) konparatuz; eta azkenik, emakumeetaz hitz egiten dutenean gehienetan beraien arropaz edo itsura fisikoaz hitz egiten dute, hau sexualizatuz.

Modu berean, zinemak ere gure gizartearen ereduaren lekuko izanik, kirolarien estereotipoak bermatzen ditu, bai fisikoki bai jarreraren aldetik. Ramirez et al.-ek (2011) azaltzen digute filmetan agertzen diren pertsonai emakumeak, aurretik deskribatu ditugun rol femeninoetatik irtetzeko, gorputz maskulinizatuak izan behar dituztela, pertsonaiaren jarrera fisikoagatik baldintzatua egongo delarik argi utziz eta paper hauetan betirako lerrokatuz. Gainera, ikerketa berak zinema eta kirola lotzen ditu eta honetan ere adierazten du emakumearen papera sedukzioarena eta gizonaren konplementua izatearena izaten dela, praktikaturako kirolak erritmikoak direlarik, adibidez *cheer lea* bezala. Azkenik, gure ikusizko kulturaren nabarmentzen den kirolarien estereotipo fisikoaren analisiarekin amaitzeko, bideo jokoen joerak ere aztertu nahi izan ditugu, izan ere ume eta nerabeentzako ereduak bait dira. Kasu honetan, aurreko hedabideetan bezala, gorputzen irudiak oso estereotipatuak dira, gizon txuriak eta gihartsuak, kirol lehiakorren postura sutsuetan agertzen direnak eta, bestalde, ehuneko oso txiki batean, emakume txuriak gorputz meheekin eta lirainekin agertzen dira (Ramirez, 2011).

3.2- Gorputz osasuntsuaren heziketa

3.2.1- Gorputz osasuntsuaren ulerkuntza LHko curriculumean

OME-ek bere konstituzioan adierazten duen bezala, osasuna ez da soilik afekzioen edo gaixotasunen falta, baizik eta ongizate mentala, fisikoa eta soziala bere osotasunean izatea ere (OME, 1948, Alcantarak aipatua, 2008). Beraz, gizaki osasuntsuak izateko laniketa holistikoa beharrezkoa egiten da, hau da, norberaren alderdi mentala, fisikoa eta soziala zaintzea. Hezkuntzaren ikuspegitik ikusita, osasunaren inguruko kontzeptuak eskolan landu beharreko edukien barnean daude. Oinarrizko Lehen Hezkuntzaren curriculumak arakaturik, azkar topatu daitezke erreferentziak osasunaren inguruan konpetentzia motorrei dagokien ataletan, non beste gai batzuekin batera aurkezten dituzten ikasleek bereganatu behar dituzten oinarrizko gaitasunak osasuna eta ongizate fisikoa lortzeko, adibidez jarduerak

fisikoaren estilo guztiak identifikatzea eta barneratzea zein, osasunarekin zerikusia duten alderdi intrintsekoak eta estrintsekoak identifikatzea besteak beste.

Curriculumaren Gorputz Hezkuntzako alderdi espezifikora joanez gero, konpetentzia motorretan “osasuna” gehien agertzen den kontzeptua da, izan ere, konpetentzia honek kirolaren praktika bultzatzea bilatzen du ohitura zein bizimodu osasuntsu bezala eta zehatzago, gorputzaren alderdi fisikoan eta emozionalean ongizatea eskuratu ahal izateko. Izan ere, Lehen Hezkuntzako konpetentzia honen edukien asmoa ikasleek ariketa fisikoarekin ongizatea eta osasuna bereganatu dezaketela ikustea da eta bide batez, egoera fisikoa hobetzeak osasunari maila askotan mesede egingo diola ulertu dezaten. Horretaz gain, osasun ohitura hauek ikasleengan bermatzeko hainbat baliabide zerrendatzen dira Heziberrin. Baina hauek Lehen Hezkuntzako umeentzat ez dira jokaera egokienak OMEk ematen duen osasunaren inguruko definizioarekin konparatzen baditugu argi geratzen da. Curriculumak hutsunea du osasuna lantzeko eskaintzen dituen irizpideekin, ongizate mentala ez baitu nahikoa garatzen.

Pastor-Vicedok et al. (2015) adierazten duten moduan, jarduera fisikoa curriculumean egotearen arrazoi bakarra gorputz fisikoaren osasuna sustatzea da, onura psikikoak kontuan hartu gabe. Beraz, Gorputz Hezkuntzako curriculumak ez du kontuan hartzen jarduera fisikoak ongizate psikikoan daukan eragina, osasunari buruzko ikuspegi holistiko hori mugatuz. Zentzu honetan badaude ikerketa batzuk osasun fisiko eta mentalaren arteko erlazioa azaltzen dutenak. Adibidez, gaur egun frogatu da jarduera fisikoa egiteak memoriari eta ikasteko gaitasunari onurak ekartzen dizkiela, izan ere, kirola egiterakoan burmuineko zelula ezberdinen arteko konexioak eta neurokonexioak areagotzen dituen proteina espezifikokoak eraten bait dira, (Gómez-Pinilla, Ying, Roy, Molteniy Edgerton, 2002, erreferentziatu zituen bezala Mendoza-k, 2016). Modu honetan agerian geratzen da jarduera fisikoak duen garrantzia, ez bakarrik osasun fisikoa lortzeko, baizik eta osasunaren ideia haratago eramanez kirola praktikatzearen beharra indartzen du ikasleen etapa akademikoan.

Heziberri 2020ren analisiarekin jarraituz, osasunaren gaia Gorputz Hezkuntzako atalean gain, beste arloetan ere agertzen da, kontzeptu hau aipatzen bait da hainbat konpetentzietan ere, zientzietakoa edo gizarte-zientzietakoa izan daitezkeen bezala, agerian utziz gai honek eman ahal dizkigun aukerak diziplinartekotasuna lantzeko momentuan. Hortaz, ondorioztatu daiteke osasuna diziplinarteko eduki pedagogikoa izan beharko litzatekeela, baina horretarako irizpide gutxi eta beti ere oso murriztuak ematen dizkigu curriculumak.

Azkenik, zehar-konpetentzien artean topatu ditzakegu ere hainbat aipamen osasunari, hain zuzen, nabarmenena *Norbera izaten ikasteko konpetentziaren* barnean aurkitu dezakegu non puntuetako bat “gorputzaren funtzioak, norberaren osasuna eta ongizatea eta

gorputzaren irudia autoerregulatzea” (Eusko Jaurlaritza, 2020, 22. or.) bilatzen dela esaten digu, aurrerago hau ere aipatuz “osasunaren zaintza eta ongizatearen kontzientzia” (Eusko Jaurlaritza, 2020, 52. or.). Zehar-kompetentzia berdinarekin baita, OMEek bezala, curriculumak aipatuko digu osasunaren esanahiak gaixo egotearen kontrako zatik baina haratago doala, hori dela eta, hiru dimentsioetan banatzen digu osasuna osotasunean deskribatzeko: dimentsio fisikoa, dimentsio emozionala eta dimentsio psikologikoa. Mendozak ere hiru dimentsio hauek defendatzen ditu umeen osasuna lantzeko eta beraien gain garapen egokia ziurtatzeko modua. Ikertzaileak defendatzen duen bezala, gaur egun dimentsio fisiko, psikiko eta emozionala egoki jorratzea ikasleekin, etorkizunean ahalbidetuko du gizarte osasuntsu eta independenteago bat izatea. Medikuntzak bizi-itxaropena handitu du baina ez honen kalitatea, hau jardura fisikoak egin dezake eta honetarako ezinbestekoa izango zen Heziketa Fisikoak ordu gehiagorekin kontatzea ikastetxetan astean zehar (Mendoza, 2016).

Beraz, Heziberrik gizartearen osasunaren inguruan dituen beharrak kontuan hartzen dituela esan daiteke, honetan hezteko intentzioa ikusita. Baina honek, lehentasun handia ezartzen du osasun fisikoari beste osasun moten gainetik, jardura fisikoak ikasleen autoestimuan eta adimenaren garapenean daukan gaitasuna alboratuz. Hori dela eta, alde psikologikoa zein emozionala zaintzeko arazoak ikusi dira ere eta hau umeei daukaten gorputzaren irudiarekin bat dator hein batean. Beraz, derrigorrezko pausoa izango da ikustea irudi fisikoari ematen zaion garrantzia Gorputz Hezkuntzako saioetan eta klase hauen hezitzaileen papera honetan guztian.

3.2.2- Irudi fisikoaren lanketa Gorputz Hezkuntzan

Lehenengo atalean ikusi den bezala, Lehen Hezkuntzako ikasleek, gizartearen parte diren heinean, etengabe gorputzaren irudi estereotipatu eta idiliko baten informazio jarria sufritzen dute. Horren ondorioz, neurri gabeko gihardura edo modeloen gorputzera beraien ikusizko kulturaren parte izatea normalizatzen dute eta, are okerrago, gorputz mota horiek osasuntsuenak direla uste dute. Horregatik, eskolaren ardura bada ikasleei ideia honen kontra egiteko baliabideak ematea, garrantzitsua da curriculumak aurkezten dituen irizpideak ulertzea. Umeek gorputz osasuntsuaren irudian hezi nahi baditugu, *Norbera izaten ikasteko kompetentziaren* barnean topatu dezakegu osasunaren eta ongizatearen garrantzia goraiatzeko duen puntu bat, eta horrekin batera bakoitzaren gorputz-irudiaren kontzientzia hartzea eta hau erregulatzea sustatzen duena.

Honetan sakonduz, curriculumak gorputz-irudia zer den adierazten du “nork bere gorputzaren gainean duen kontzientzia edo irudipena” bezala. Kontzientzia hau positiboa

edo negatiboa izan daiteke, ikasleak bere gorputzarekiko onarpen mailaren arabera. Kontu handiz tratatu behar da onarpen fisiko honen garapena, izan ere, ikasleek beraien harremanak eraikitzerakoan eta beraien nortasunean, zein auto-estimuan eragin zuzena izan dezake (Eusko Jaurlaritza, 2020, 54. or.). Gainera, Heziberrin bertan agertzen dira umeen autokontzeptu fisikoa baldintzatzen dituzten faktore batzuk, esate baterako, modak, edertasun-kanonak edota gizarte-estereotipoak, eragin handia izan ditzaketenak batez ere ikerketa honetan ageri diren adineko ikasleengan (Eusko Jaurlaritza, 2020, 54. or.).

Ikusi dugunez, hezkuntza sistemak ulertzen du ikasleek beraien eta inguruko gorputzekiko begirunea izatearen garrantzia, eta behin baino gehiagoetan jasotzen da curriculumean gai hau lantzearen beharra. Hala ere, curriculumak ez ditu sakonki azaltzen gure ikusizko kulturak edo gizarteak saltzen dizkigun gorputz eredu ez naturalak normalizatzearen arriskuak. Gorputz "osasuntsuaren" irudi estereotipatuak ume eta nerabeei beraien irudia onartzeko prozesua oztopatzen die, hortaz, irakasleek bete beharreko hutsune bat bezala ikusi daiteke arazo honi aurre egin ahal izatea ikaslegoari gorputz osasuntsuen eredu ezberdinak eskainiz beraien iruditegia zabaldu dezaten. Material didaktikoei so eginez, gorputz formaren eta irudiaren inguruko estereotipoak txikitatik jasotzen hasten garen heinean, gure barnean sartzen dira estimuluei sentiberago gauden adin tarte batean, hauek arlo eta maila askotan direlarik eta honek bizitza osorako baldintzatzen gaitu.

Beraz, Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako liburuetan, beste edozein ikasgaietan bezala, jasotzen diren irudien zainketa bat jaso behar dela argi dago, izan ere, Moya-Matak et al. (2014) azken zikloko hainbat liburu ikertu ostean, hemen ageri diren gorputz idealizatu, homogeneizatu eta batez ere sexistak direla ondorioztatu dute, modu oso orokortu batean gizon txurien gorputz ektomorfoak baitira. Ondorioz, ikertzaile hauek dioten bezala, beste eredu anitzen artean gorputz endomorfoen falta izateak ikasleengan elikadura-nahasmenak sortu ditzake, gorputz mota bat idealizatzegatik. Ildo berdinetik doa Taboasen tesiak (2010) zein honek Reyrekin batera egindako ikerketa (2007). Nahiz eta ikerketa hauek DBHko liburuekin egin izana, hauen emaitzek identifikatzen dituzte irudi estereotipatu asko, non giza gorputzik ohikoena maskulinoa den, somatotipoen konbinaketa batekin, txuria eta gaztea. Horretaz gain, irudi femeninoak oso urriak izaten direla, hauen arteko garrantziaren distantzia handituz eta, bestalde, kirol motak lehiakorrek direla eta inklusibitatea ere ia ikusiezina dela azaltzen digute.

Lopez eta Gauliren (2000) esanetan gauza bat da ikustea eta beste bat ulertzea ikusten dena, hau oso ezberdina delarik eta bere biziko garrantzia daukala gorputzaren kanonen zergatiak hausnartzea begirada kritiko bat sustatu ahal izateko gizarteari inposatutako estereotipoen aurrean. Hala ere, badirudi liburu hauen editorialek norabide aldaketa batean

murgildu direla azken urteotan egindako beste ikerketa estatistiko batek argitzen digun moduan (Taboas eta Rey, 2011). Emaitzek erakusten duten bezala, editorialek ez dituzte arropa ezberdina jartzen modeloaren sexuaren arabera honi guztiari “kirol arropa” deitzen diotelarik. Modu berdinean, editorialek ez daude gorputz maskulino gihartsuak edo mesomorfoak sustatzen ari ezta emakumeen gorputz ektomorforik ilustratzen ari, nahiz eta orain arte asko ikertu izan den ikasleen pentsamendua noranzko honetatik baldintzatua zegoela. Baina testu liburuek beste motatako ezberdintasunak eta estereotipoak bultzatzen dituztela argi geratu da Gonzalezek (2015) bere tesian ikertu duen bezala. Besteak beste, ohikotasun handiagoarekin agertzen dira aniztasun funtzionaleko emakumeak, pertsona adinduak eta abarrekoak baino hein handi batean estereotipo printzipala gizon gazte txuria izaten jarraitzen du. Honi batu behar zaizkio argazkietan arropa marken agerpena, hezkuntza publikotik interes ekonomiko batzuei erantzuten ari baitiete.

Gorputzaren irudia hezkuntzan lantzeko gai garrantzitsua denez, gero eta Gorputz Hezkuntzako irakasle gehiago arduratzen ari dira honetaz. Honen adibidea, Lopez-Villar eta Villaverde-n (2018) Gorputz Hezkuntzako proposamen didaktikoa da, kirolaren estereotipoei buelta emateko asmoa duena. Gai honen inguruan Gorputz Hezkuntzako proiektu berritzaileen artean dugu ere Contreras-ek et al. (2012) proposatu zuten Gorputz Hezkuntzako programa prebentiboa, ikasleagoak beraien irudi fisikoaren distortsioak ulertu eta ekiditeko helburua zuena. Arribas eta Nogales-ek (2019) ere defendatzen dute irudiaren lanketa nerabezaroen adin tarte hauetan egin behar dela, horri buruzko kontzientzia pizteko eta irudi fisikoaren inguruko nahasmendu psikikoak ekiditeko, gainera, nabarmentzen dute irakaslearen jarrera ezinbestekoa dela gorputz osasuntsuaren gaia landu ahal izateko. Horretan bereziki sakontzen dute Pastor-Vicedok et al. (2019), beraien ezkutuko kurikulumaren inguruko ikerketan, nabarmenduz nola irakaslearen papera bere biziko garrantzia daukan eta honek eragina izan dezakeen ikasleen pertzepzio fisikoan eta genero estereotipoetan, emaitzekin eta errendimenduarekin bat etorrira. Beraz, ikusten da behar sakon bat gorputz hezkuntzako irakaslearen jarrera eta rola errebisatzeko zein lantzeko ikasleengan eragin negatiboak izan ez ditzaten.

Laburbilduz, gaur egungo hezkuntzako curriculumean argi aipatzen da osasun fisikoa lantzeko beharra, eta gai honen diziplinarteko trataera egin daitekeela. Hala ere, Heziberrik ez du erlazio zuzena egiten ikusizko kulturaren agertzen den gorputz osasuntsuaren estereotipo eta ikasleen autokontzeptuaren artean, eta ez du ohartzen honek izan ahal dituen arriskuak. Gainera, gure ikasleek txikitatik jasotzen dituzten “gorputz osasuntsuen” irudiak material didaktikoetan ere estereotipatuak dira, arazo honen ondorioak eta desabantailak areagotuz. Baina azken urteetan badaude Gorputz Hezkuntzako irakasle eta ikertzaile askok arazo honetaz jabe egin direnak, eta baliabide didaktikoen bidez gorputz

osasuntsuaren iruditegi erreala jorratzearen asmoarekin emaitza garrantzitsuak lortzen ari dira.

3.3- Gorputz osasuntsuaren irudia Artearen Hezkuntzan

3.3.1- Artearen Hezkuntzaren inguruko joera garaikideak

Diziplinarteko ikuspegia modu teoriko batetik ulertzeko, gorputz osasuntsuaren irudiaren gaia Artearen arlotik ere hausnartu nahi izan da lan honetan. Heziberri 2020n Arterako Konpetentzien barruan Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza, Musika eta Arte Eszenikoak eta Dantza biltzen dira, baina kasu honetan Artearen Hezkuntzaz hitz egiten dugunean Arte Plastiko eta Bisualetan oinarrituko gara. Bide tradizioaletik ikusita, ikaskuntza arlo honek betidanik eskulanekin eta eskolako horniketarekin lotuta egon izan da. Hala ere, gaur egun badaude Artearen Hezkuntzako irakasle askok ikuspegi horrekin ados ez daudenak, eta ikasgaiaren eduki teoriko eta praktikoak oraingo gizartearen egoerarekin lotzea proposatzen dutenak.

Adibidez, Mesiasek (2019) “(ez)curriculum” aldarrikatzen du, hezkuntza-matxinada eredu bat proposatuz artea Artearen irakaskuntzaren bidez. Autore honek dio Artearen hezitzaileek ezin dutela bete sistemaren erreproduzio funtzio hutsa, hauen rola ez bait da soilik tekniko. Ildo beretik Acasok (2014) betiko eskularen kontrako argudiaketa egiten du, hauek aurrera eramateko eskuen motrizitatea trebatzen delako soilik, ahalegin kritikorik gabekoa, hau da, errepikapena edo patroiak kopiatzea sustatuz. Honetan sakonduz, Acasok eta Megiasen “*rEDUvolution*” (2013) eta “*Art Thinking*” (2017) liburuetan Artearen Hezkuntza eredu ideologiko bat azaltzen dute, hauen aburuz Arterako irakasleen ardura da ikasleek beraien inguruan gertatzen dena behatzeko, arakatzeko eta hausnartzeko konpetentziak garatzea, ondoren proiektu artistikoen bidez egoera eraldatu edo salatu ahal izateko.

Beraz, Artearen Hezkuntzaren eredu hauek plastikako klaseak beste helburu, metodologia eta edukien bidez jorratzea planteatzen dituzte, horretarako irakaslearen funtzioari eta jarrera kritikoari garrantzia emanaz. Irakasleak menperatu behar dituen arloen artean, autore askok arte garaikidearen ezagutza kokatzen dute oinarri bezala, honek irekitzen bait du bidea gaur egungo gizartearen eta kulturaren iruditegia ulertzeko, zabaltzeko eta eraldatzeko, lanketa kontzeptuala alor gakoa bait da (Antunez, Avila eta Zapatero, 2008; Acaso eta Megias, 2017; Mesias, 2019, Agirre, Madariaga-Lopez, eta Gutierrez, 2020). Gaur egungo irakasle askok aldarrikatzen duten Artearen Hezkuntzaren paradigma aldaketa laburtuz, De Pascual, Megias eta Moralesek (2020) hurrengo eskema proposatzen dute (167.or):

- Ikusizko kulturatik → Arte garaikidera
- Esanahirik gabeko teknikatik → Artearen Hezkuntzara pentsamendu kritiko gisa
- Objektuak sortzetik → Prozesuak lantzerara
- Edertasun formaletik → Kontzeptuen bidezko edertasunera
- Hildako artisten inguruan lan egitetik → Bizirik dauden (emakume) artisten inguruan lan egitera
- Autoadierazpen sortzailetik → Kritika soziopolitikora
- Banakako egiletzatik → Produkzio kolektibora

Artearen lanketa eta ikuspegi garaikide honek oso aproposa da gure gizartearen irudi estereotipatuen inguruko hausnarketak egiteko ikaslegoarekin. Izan ere, gorputz osasuntsuari buruzko iruditegi normalizatua oso lotuta dago ikusizko kulturaren erakusten dizkiguten irudi idealizatuekin, eta horri aurre egin ahal izateko Artearen Hezkuntza kritikoa oso baliabide erabilgarria izan daiteke.

3.3.2- Irudi fisikoaren lanketa Ikusizko Kulturaren Hezkuntzaren bidez

Aurreko eskeman ikusten den bezala, ikusizko kultura eta arte garaikidea lotura zuzena dute gaur egungo Hezkuntza Artistikoaren eredu horretan. Esan bezala, marko pedagogiko tradizioaletan plastikako helburua objektu “politak” sortzea zen, ereduak kopiatzea, eskulanak errepikatzea, ikasleen hausnarketa bilatu gabe. Gaur egun ordea, badakigu metodologia hori motz geratzen dela ikasleak haien errealitateari aurre egin ahal izateko, Ikusizko Kulturaren Heziketa ezinbestekoa delako. Agirre, Madariaga-Lopez eta Gutierrez-ek (2020) dioten bezala, oraingo gizartea irudiaren bidez komunikatzen da, umeak jaiotzen direnetik jasotzen dute irudi-bonbardaketa jarrai bat (publizitatea, pantailak, sare sozialak, internet, etab.), eta horregatik beharrezkoa da irudien irakurketa kritikoa egiten ikastea Lehen Hezkuntzatik. Autore hauen aburuz Arteko ikasgaiaren ardura da ikasleria horretarako prestatzea, hau da, gure umeek irudien ekoizle eta kontsumitzaile izateko gaitasuna trebatzea.

Acaso eta Megias-en (2017) hitzetan “irudiak, narrazioak eraikitzeaz gain, beste eginkizun bat dute, gure jarreraren edo pentsaeraren eragitea: gaizki sentiarazten gaituzte, gimnasia joan gaitezen lortzen dute, gorrotoa pizteko gai dira, eta batez ere, kontsumismoa bultzatzen dute” (51.or). Bi autore hauek ohartarazten gaituzte lengoai bisualak gure eguneroko bizitzan duen botereaz, industria oso bat bait dago lanean horren atzean: publikitatea, zinema, telebista, argazkilariak, modeloak, ikus-entzunezko teknikoak, *youtuber*-rak, *influencer*-rak... Esparru hauek guztiak makro-errelato bisualak sortzen dituzte, egunero kontsumitzen dugun ikusizko kultura, alegia.

Dominguez-ek (2021) diotenaren arabera, gure garunak prozesatzen duen informazioaren %90a bisuala da. Irakurtzen dugunaren %20a, entzuten dugunaren %10a eta ikusten dugunaren %70a gogoratzen dugu. Autore honek irudi estereotipatuak normalizatzearan arriskuaz ohartarazten gaitu hainbat arrazoiengatik: gizakia ikusten duenaren imitatzailerik konpultsiboa delako; estereotipoak kontzeptu sintetizatuak direlako eta esanahi sakonagoak ezabatzen dituztelako, estereotipoetatik ateratzen dena baztertzeko joera dagoelako gizartean (homofobia, xenofobia, lodifobia, etab. indartuz), eta azken finean, pentsamendueredu bakarra sustatzen duelako, aniztasunaren kontra eginez.

Arazo honi aurre egiteko asmoarekin Acaso eta Megias-ek (2017) eskolaren ardura goraiatzeko dute, irudien aurrean pentsamendu kritikoa garatzeko helburuarekin: "internet-ondorengo Heziketa Artistikoa lengoai bisuala erabili behar du zeharkako baliabide gisa, irudi kapitalisten botere performatiboa deseraiki ahal izateko, errealitatea errepresentazioetatik desberdintzeko gai izateko" (54.or). Behar hau haurtzarotik ezinbestekoa egiten da, irudien aurrean zaurgarritasun handiko etapa delako, ikusizko kulturaren mezuak esparru intimoenean jasotzen bait dugu: etxean, familia eremuan, gure sozializazio-eredua den gunean (Dominguez, 2021). Hortaz, txikitatik lengoai bisualaren kodeak menperatzea kompetentzia garrantzitsua izan beharko zen hezkuntza formaleko helburuen barruan, irudiaren bidez kontzeptuak kritikoki ulertzeko eta komunikatzeko gaitasuna beharrezkoa delako pantaila eta sare sozialen garai honetan.

Marko teoriko honen lehenengo atalean ikusi den bezala, gaur egungo ikusizko kulturaren gorputz osasuntsuaren irudia guztiz estereotipatua dago, eta aldi berean estereotipo hau haurtzarotik barneratzen goaz. Dominguezek (2021) azaltzen du idealizatuta dugun irudi honek gure jarreran eta autokontzeptuan eragin zuzena daukala, eta gorputz irreal horrekin konparatzeak sufrimendua dakarrela, umeak eta nerabeak haien artean epaitzen bait dira ezaugarri fisikoengatik, eta ideala ez betetzea erruarekin bizi daiteke, batez ere nesken kasuan. Horrelako irudien aurrean irakaskuntza kritikoa egiteaz gain, Arte garaikidea baliabidea izan daiteke gorputzen iruditegia zabaltzeko aniztasunaren alde. Eredu bezala Yolanda Dominguezen portfolio digitalean (2017) hurrengo proiektuak ikusi, landu, hausnartu eta bertsionatu daitezke Lehen Hezkuntzako ikasleekin, adibidez "niños vs. moda" (2015), non umeek iragarkietako genero estereotipoak deseraikitzen dituzte, edo artista honek egindako kontrapublizitate kanpaina batzuk: "No soy solo un cuerpo" (2014) edo "Rompe el estereotipo. Supéralo" (2020), azken hau ikerketa honen baliabidetzat erabili izan dena.

4- HELBURUAK

Lan hau diseinatzerako orduan hurrengo ikerketa galderetatik abiatu zen: Zeintzuk dira komunikabideek erakusten dizkiguten osasunaren estereotipo bisualak? Eta nolako eragina izan dezake horrek Lehen Hezkuntzako ikasleengan? Posible al da publizitatearen arriskuei aurre egiteko umeak heztea? Zer nolako baliabideak eta estrategiak ditu hezkuntzak horretarako?

Ikerketa-galdera horietatik hurrengo helburu orokorrak ezarri ziren:

1. Iragarkietako estereotipo fisikoek Lehen Hezkuntzako ikasleen gorputz osasuntsuen iruditegian daukaten eragina ikertzea.
2. Kirolaren estereotipo fisikoen inguruko pentsamendu kritikoa garatzeko, diziplinarteko proposamen didaktikoa diseinatzea, Lehen Hezkuntzako ikasleekin praktikara eramatea eta honen emaitzen analisia egitea.

Hauek lortzeko berriazko helburuak finkatu izan dira:

- 1.1. Gorputz osasuntsuei buruzko ikasleen aurreiritziak eta iruditegi estereotipatuak identifikatzea.
- 2.1. Gorputz Hezkuntza, Arteen Hezkuntza eta Tutoretza arloak batuz, Lehen Hezkuntzarako 6. mailarako proposamen didaktikoa diseinatzea.
- 2.2. Ikasleen emaitza plastikoen analisia eginez, haien kirol-iragarkien inguruan duten ikuspuntu eta iritziak aztertzea.
- 2.3. Gorputz adierazpena erabiliz, ikasleek hedabideetan ikusi ohi dituzten kirolari normatiboetaz haratago, gorputz osasuntsuen inguruko iruditegia zabaltzeko gai diren behatzea.
- 2.4. Lehen Hezkuntzako ikasleek gorputz osasuntsuei buruzko pentsamendu kritikoa garatu duten jakiteko, beraien hitzezko adierazpena, adierazpen grafikoa eta gorputz adierazpena analizatzea.

5- METODOA

Aurreko ataleko helburuak lortzeko metodologia zehatz bat diseinatu da. Hori deskribatzeko hurrengo lerroetan ikerketako parte-hartzaileak edo lagina, erabilitako prozedura eta ikerketa tresnak, eta emaitzak lortzeko egin den analisisa azalduko da.

5.1- Parte-hartzaileak

Ikerketa honekin kirol- estereotipo fisikoari buruzko umeen iruditegia aztertu nahi zen, eta bide batez horren inguruko pentsamendu kritikoa sustatu ere. Horretarako, Gradu bitartean egindako praktikaldian aurrera eraman da ikerketa, 2020ko azaroa eta Abendua bitartean Zabalzana eskolako 6.D mailako ikasleekin. Guztira, 21 ikasle hartu dute parte jarduera honetan, eta hurrengo taulan laburtu dira taldearen ezaugarri esanguratsuenak:

GENEROA	NESKAK	MUTILAK
	7	14
ADINA	10-12 urte	
BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK	1	

1. taula: CEIP Zabalzana HLHI-ko 6.D mailako ikasleen datuak laburturik.

Ikusten den moduan, talde honek kulturartekotasun izaera nabarmena dauka, izan ere, hainbat umeen gurasoen jatorria estatu espainolekoa edo atzerriko beste puntuetakoa baita. Horretaz gain, nesketako bat brasildarra da eta 3 urte daramatza Gasteizen. Neska gutxi daude mutilen kopuruarekin alderatuz eta, nahiz eta Pedagogo Terapeutikoen beharra daukan ikasle bat egon, soilik ikasgai konkretu batzuetan beharrezkoa zuen honen laguntza klaseak aurrera eramateko orduan, ikerketan erabilitako klaseak ez direlarik izan. Beste alde batetik, ikasle guztiak eta beraien familiak hasieratik jaso dute ikerketaren informazioa (gaia eta helburuak azaldu zitzaizen), eta bai ikasleek bai gurasoek adostasuna erakutsi zuten jarduera honetan parte-hartzeko, azken hauek baimen informatua (Ikusi 10.4. eranskina) sinatuz.

Diziplinarteko unitate didaktikoa diseinatu eta gauzatu nahi zenez, Artearen Hezkuntzako irakasleak, Gorputz Hezkuntzako irakasleak eta 6.Dko tutoreak ere hartu dute parte ikerketa honetan, haien ikasleen ezagupena esperientzia konpartituz ikertzailearekin. Hiru irakasle hauek diseinatutako dinamika eta prozeduren jakinarazpenean mantentzeaz gain, askotan jarduera bitartean klasean egon dira behatzaile edo laguntzaile rolean.

5.2- Prozedura

Emaitzak lortzeko diziplinarteko diseinu didaktiko bat sortzea zen helburuetako bat. Horretarako 3 ikasgaien arteko lotura egin zen, arlo bakoitzaren eduki eta baliabide zehatzak erabiliz:

- **Gorputz Hezkuntza:** Metodologiatzat joko-jolasaren praktika soziomotorrak aukeratu ziren, kontzeptuak ikasteko baliabide gisa, aldi berean lan kooperatiboa sustatuz. Edukien aldetik gorputz osasuntsu ez estereotipatuak eta emakume kirolarien ereduak aukeratu ziren. Ikasgai honetan gorputz adierazpen bidezko pentsamendu kritikoa sustatu nahi zen.
- **Artearen Hezkuntza:** Metodologiaren aldetik irudien analisi eta ekoizpen kritikoa aukeratu zen, emakume artista garaikideak erabiliz eredu moduan. Edukiak ikusizko kulturaren baliabideen ezagutzan oinarritu ziren, publizitatearen estrategiak ulertu eta identifikatu ahal izateko. Ideien adierazpen grafikoa bilatu zen, proiektu artistiko kooperatiboen bidez.
- **Tutoretzak:** Helburua iritziak emateko eta entzuteko gaitasunak trebatzea zen, horretarako hainbat ikus-entzunezko baliabideak erabili ziren eta horren inguruko eztabaidak sustatu parte-hartzaileen artean. Saio hauen adierazpen modu nagusia hitzen bidezkoa izan zen.

Proposatutako diseinu didaktikoa 6. mailako ordutegien barruan sartu, adostu izan da arlo hauetako irakasleekin jardueren plangintza, garapen egoki bat mantentzeko asmoarekin. 10.5. eranskinean agertzen da praktikan aurrera eramandako unitate didaktiko osoa, eta 10.6. eranskinean berriz, laburtzen dira saio bakoitzean egindako jarduera eta horren arloa, helburuak, eta erabilitako ikerketa tresnak.

5.3- Ikerketa tresnak

Ikerketaren emaitzak lortzeko, jarduera didaktikoetan lortutako datuak jaso dira. Horretarako aurretiko prestaketa bat egon da, bai ikasleei emango zitzaaien materialak, baliabideak eta informazio teorikoa prestatuz, bai ikertzaileak erabiliko zituen behaketa tresnak diseinatuz. Modu orokor batean, hiru multzotan sailkatu ditzakegu erabilitako ikerketa tresnak: Aurretiko testa, ikertzailearen behaketa koadernoak eta ikus-entzunezko baliabideak, eta ikasleen adierazpena (grafikoa, motorra eta idatzizkoa).

a) AURRETIKO TESTA:

Ikerketa honen helburu garrantzitsuenetako bat gorputz osasuntsuari buruzko umeen aurreiritziak ezagutzea zen. Horretarako test bat diseinatu zen (Ikusi 10.7. eranskina), irudia eta ikusizko adierazpena komunikazio tresnatzat erabiliz. Test hori parte-hartzaileen aurreiritziak identifikatzeko prestatuta dago, eta hainbat galdera grafikoen bidez haien kirolaren estereotipo estetikoaren inguruko ikuspuntua eta kirolari-ereduak azaltzeko eskatzen zaie. Ikerketa honetan erabili nahi diren irudien eredu on bat kirol elikadura kontrolatzeko enpresa baten web orrialdean topatu da (ikusi 10.1. eranskina):

b) BEHAKETA KOADERNOA ETA IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK:

GrALaren datu gehienak ikasleekin egindako jardueretan jaso behar ziren. Horregatik klasean zehar informazioa biltzeko bi tresna diseinatu ziren. Alde batetik ikertzailearen behaketa-koaderno, idatziz jasotzeko ikasleek esaten edo egiten zutena, eta baita ikertzaileari esanguratsuak iruditzen zitzaizkion gertaerak ere. Beste aldetik, ikasleek informazio asko mugimendu edo irudien bitartez komunikatuko zutenez, ikus-entzunezko erregistroa erabiltzea erabaki zen, hau da, argazkia eta bideoa, beti ere gurasoen baimena izanda.

c) IKASLEEN ADIERAZPENA:

Saio praktikoen bitartez parte-hartzaileen iritzia ezagutu eta proiektuan zehar pentsamendu kritikoa garatzen zuten aztertu nahi zenez, ikasle goaren adierazpena berebiziko garrantzia du ikerketa honetan. Diziplinarteko proiektua izanda, adierazpen-bide desberdinak erabili dira, beraz beste 3 azpimultzo identifikatu ditzakegu ikerketa tresna honen barruan:

- **Gorputz adierazpena:** Adierazpen motorra sustatu nahi zen Gorputz Hezkuntzako saioetan, goi mailako kirolarien eredu ez normatiboak landuz adierazpen motorren bidez eta barne-logika zehatzengatik zuzendutako hainbat egoera soziomotorren bidez, hau da, joko-jolasen bidez. Informazio performatiboa denez, argazki eta bideoen bidez jaso dira mota honetako datuak.
- **Adierazpen grafikoa:** Honetan ikasleek egindako marrazki eta emaitza plastikoak biltzen dira, hau da, aurretiko testan egindako marrazkiak, 2. saioan egindako *doodle bombing*-a eta 5. saioan egindako *collage*-ak. Irudi originalak digitalizatu dira (eskaneatu) hauen analisia egin ahal izateko.
- **Hitzen bidezko adierazpena:** Saio guztiak diseinatu ziren parte-hartzaileek haien iritzia partekatu eta eztabaidatu ditzaten. Horregatik, testu moduko

hainbat datu jaso dira jardueretan: 1. saioan aurretiko testa eta taldeko *brainstorming*-a, 2. saioan *doodle bombing*-etako idatzizko kritikak, 3. saioan talde txikitako hausnartutako ondorioak, 4. saioan ikasleen arteko elkarrizketa espontaneoak, 5. saioan kontrapublizitate kanpaina asmatutako leloak, eta 6. saioan amaierako ondorioen *brainstorming*-a eta haiek idatzitako azalpen-kartela. Ikasleen hitz eta esaldi hauek guztiak jaso dira argazki edo behaketa koadernoaren bitartez, eta paperezko euskarrian idatzitakoak digitalizatu egin dira ere, ondoren hauen analisia egin ahal izateko.

5.4- Emaitzen analisia

Aurreko atalean ikusi den moduan, emaitzak lortzeko hainbat motatako datuak jaso dira jardura praktikoen bitartean: ikaslearen aurreiritziak (hitzezkoak eta grafikoak), ikertzailearen behaketak eta parte-hartzaileen iritziak osasun fisikoaren inguruan. Informazio hau guztia bildu eta metodologia kualitatiboaren bitartez analizatu egin da. Kasu batzuetan datu kuantitatiboren bat ere erabili da, hainbat gertaera konkretuen frekuentzia kontuan izateko. Hala ere, zenbakizko emaitza hauek interpretazio kualitatiboan sakontzeko erabili dira, azken finean ikaslearen iritzia ezagutzeko delako ikerketaren helburua, hau da, umeen ikuspuntuak eta argudioak ulertzea.

Ikasleen osasun fisikoari buruzko aurreiritziak ezagutzeko, parte-hartzaileek banaka idatzitako testuen erantzunak eta talde handian egindako hasierako *brainstorming*-ak programa digital kuantitatibo batera pasatu ziren, ikasleen erantzunen bitartez datu estatistikoak lortuz. Ondoren, informazio honetan sakontzeko eta datuen interpretazio zabalagoa egiteko, datu horiek alderatu eta ikertzaileak bere behaketa koadernoan jasotako oharrekin borobildu dira. Beste alde batetik, diziplinarteko proiektu didaktikoaren emaitzak jaso dira, parte-hartzaileen adierazpen motorra eta grafikoaren analisiaren bitartez. Honetarako ikertzaileak idatziz deskribatu ditu ikasleen erantzunak, eta ondoren honen kategoria kualitatiboak identifikatu dira azken ondorio bezala ikerketa gaiarekiko parte-hartzaileen pentsamendu kritikoa garatu den edo ez aztertzeko.

6- EMAITZAK

Lehen aipatu den bezala, ikerketa honek bi oinarrizko helburu ditu: Iragarkietako estereotipo fisikoek LHko ikasleen iruditegia daukaten eragina ikertzea, eta hauen pentsamendu kritikoa garatzea diziplinarteko proposamen didaktiko baten bidez. Helburu horiek kontuan hartuz, atal honetan emaitzak bi multzoetan bereiztu dira, bakoitzak helburu bat jarraituz:

- A) Gorputz osasuntsuei buruzko ikasleen aurreiritziak identifikatzea honekiko daukaten iruditegia estereotipatua den jakiteko (6.1 atalean garatutako informazioa).
- B) Diziplinarteko diseinu didaktikoaren bidez lortutako emaitzen analisia egitea, pentsamendu kritikoa garatzea lortu den baieztatu edo ezeztatu ahal izateko (6.2 atala).

6.1- Aurreiritzien analisia

Ikerketa honetarako prestatutako aurretiko testaren lehenengo galderarekin kirolarien generoen arteko ezberdintasunak aztertu nahi zen. Ikasleek beraien erantzunetan adierazitakoaren arabera, badaude desberdintasunak neska osasuntsu baten gorputza eta mutil osasuntsu baten gorputzen artean. Nahiz eta bi generoetan ektomorfoen zein mesomorfoen aldeko erantzunen kopurua antzekoa izan (%50aren inguru), nesken kasuan ektomorfoen alderako joera bat eman zen eta mutilen kasuan berriz, mesomorfoen alderakoa zen. Hau horrela izanda, bi generoetan ez zen eman erantzunik endomorfoen alde 10.8. eranskinean ikus daitekeen bezala.

Generoa alde batera utzita, galdetegiaren bigarren galdera gorputz osasuntsuaren ezaugarri fisiko-estetikoetan sakontzeko erabili zen. Honen emaitzei erreparatuz, ondorioztatu daiteke ikasleek oso errotuta dituztela estereotipoak, izan ere, ikasleen ia erdiak (%47,6) pentsatzen dute “nahiko garrantzitsua dela” edo “oso garrantzitsua dela” altua izatea gorputz osasuntsu bat izateko (ikusi 10.9. eranskina). Handiagoa izan da jaso egin den emaitza gorputz osasuntsua argala izan behar den galdetzerakoan, ezaugarri hau gutxienez “nahiko garrantzitsua dela” adierazten dutenek ikasleen gehiengoa izan da (%52,4) (ikusi 10.10. eranskina). Gorputz osasuntsua gihartsua izan behar dela uste dutenen kopurua berriz, ez da hain handia izan baina ikasleen %42,8ak behintzat “nahiko garrantzitsua dela” aukera hartu du. Ehuneko honek nabarmena dela adierazi daiteke eta ikasleek gorputz osasuntsuekiko dituzten aurreiritzien susmoa izan, (ikusi 10.11. eranskina) batez ere kontuan izanda pertsona orok dituen ezaugarri batzuk aldakorrak direla eta beste batzuk berezkoak.

Aipatutako hiru grafiken erantzunen joera aldatzen duen puntua galdetutako 10.12. eranskina izan da. Honetan, gorputz batek osasuntsu izateko zenbateko garrantzia egozten dioten estetika zaintzeari ageri da. Oraingo honetan, ikasleen hiru laurdenak (%76,1) “ez du zerikusirik” edo “garrantzi minimoa” ematen dio. Hala ere, emaitzen analisiaren bigarren zatian konprobatu daitekeen bezala, honek kontraesan iturri handia izan da, aurretiko testaren atal honen azken galderan, ikasleek gorputz osasuntsuaren ezaugarri bat idatzi behar zutenean, nahiz eta askok aipatu dituzte hainbat ezaugarri osasunarekin zerikusia daukatenak (elikadura izanik gehien errepikatu dena). gehiengoak bereizgarri fisikoak eta estetikoak adierazi dituzte, hauei nahiz eta garrantzi maila ezberdinak eman arren. Adibidez, adierazgarria da behin baino gehiagoetan “ilea” aipatu egin dela eta garrantzi handia eman diotela aurreko galderaren ezaugarrian kontrako emaitza eman delarik.

Azkenik, partehartzaileei eskatu zitzaaien beraien kirolari gogokoena marrazteko, haien iruditegiaren analisia eginez hainbat datu lortu ahal izateko, haien artean, lagin honetan gehien gustuko duten kirol mota, ezagutzen dituzten kirolarien generoa eta hauetan gehien nabarmentzen dituzten ezaugarri fisikoak. Kirolaren aldetik, nabarmena da futbola beste edozein kirolaren gainetik dagoela beraien gustuetan, futbola talde osoan %47,6-ko maiztasuna duen bitartean, tenisa, saskibaloia, gimnasia, badminton, txirrindularitza eta dantza denak batera gainerako gustuak osatzen dute (ikusi 10.13. eranskina). Beste alde batetik adierazgarria da ikasle hauen erreferentziazko kirolarien genero arteko ezberdintasuna: 21 ikasleen artean soilik hiruk aukeratu zuten emakumezko kirolariak marraztea (ikusi 10.14. eranskina). Umeen iruditegiaren analisiarekin amaitzeko, marraztutako ezaugarri fisikoak aztertu dira. Emaitzetan ikus dezakegu kirol mota bakoitzaren mobila edo objektua marrazteaz gain, garrantzi asko eman dietela kirolarien jantziei, adibidez, kirol markaren logoa nabarmenduz. (ikusi 10.15. eta 10.16. eranskinak)

Laburbilduz, behin galdetegi honen erantzunen analisia eginda, esan genezake ikasleek badituztela aurreiritzi estereotipatuak gorputz osasuntsuen inguruan, ikusizko kulturen erakusten denarekin bat datozenak, hau da, marko teorikoaren 1. atalean deskribatzen diren “gorputz osasuntsuen” kanonak edo patroiak agertu dira ikasle goaren erantzunetan. Gorputz egiturari buruzko erantzunetan ikus dezakegu umeei erlazionatzen dutela emakumeen osasun fisikoa hauen argaltasun eta giharduraren tonifikazio ezarekin eta gizonena berriz, gihardura handia, zein definitua eta indarrarekin. Beraien gustuetan oinarrituz, ondorioztatu daiteke futbola dela kirol guztien artean pisu gehien daukana, kirolarien artean emakume erreferente gutxi dituztela eta estetika eta jantziei garrantzi handia ematen dietela. Hau da, LHko talde honen emaitzen arabera, gorputz osasuntsuen iruditegia nahiko estereotipatua dagoela baieztatu daiteke: emakumeak argalak eta gihardurarik gabekoak izan beharko lirake, eta gizonak berriz indartsuak. Azkenik osasuna eta kirolaren ezaugarrien artean

alderdi estetikoak garrantzia daukala erakusten dizkigute galdetegian lortutako emaitzek, umeen marrazkietan kirolarien orrazkera, janzkera eta arropa marka bezalako ezaugarriak maiz agertzen baitira.

6.2- Gorputz osasuntsuari buruzko pentsamendu kritikoaren garapenaren analisia

Aurreko atalean azaldutako aurreiritziei eta estereotipoei aurre egiteko, 6 saiotako proposamen didaktiko bat diseinatu eta aurrera eramane da LHko 6. mailako talde batekin. Diziplinarteko prozedura eta metodologia erabili direnez, parte-hartzaileen iritziak adierazbide desberdinetatik jasotzen dira: gorputz adierazpena, adierazpen grafikoa eta hitzezko adierazpenaren bidez. Ondoren, ikasleen erantzun horiek guztiak testu moduan deskribatu dira, atal honetan pentsamendu kritikoa garatu duten edo ez aztertu ahal izateko.

Gorputz osasuntsuarekiko ikasleen begirada edo pentsamendu kritikoa garatu den jakiteko, parte-hartzaileek ikerketaren hasieran eta amaieran emandako erantzunak alderatu dira. Ikasleen iritziak modu grafiko batean laburtu eta azaldu ahal izateko, beraiek esandako edo idatzitako hitzak programa informatiko baten bidez antolatu dira, ideien maiztasunaren arabera. Horrela, posible izan da ikerketa gaiari buruz bizitako aldaketa edo garapena modu bisual batean antzeman ahal izatea: 4. Irudian (ikus 10.17. eranskina) lehenengo saioan konpartitu zuten gorputz osasuntsuen taldeko-*brainstorming*-aren eta aurretiko testaren laburpen grafikoa agertzen da eta 5. Irudian (ikus 10.17. eranskina) berriz, azken saio praktikoa sortutako gorputz osasuntsuei buruzko leloak eta kontra-kanpainaren azalpena.

Bi irudien arteko konparaketa eginez, antzeman daitezke desberdintasun batzuk ikaslearen iritzietan. Bi kasuetan “gorputz osasuntsuen irudia” deskribatzen ari diren arren, lehenengo saioan argi ikusten da ezaugarri estetikoek daukaten pisua, sarritan errepikatu bait dira berez osasunarekin zerikusirik ez duten kontzeptuak: “ilea (luzea, motza, txanpua)”, “bizarra”, “aurpegia”, “arropa marka”... argi utziz ikusizko kulturaren eragina ikasle hauen iruditegian. Horrekin batera, beste motatako ezaugarri fisikoak aipatzen dituzte: “argala”, “potoloa”, “altua”, “bajua”, “grasa”... eta bereziki gihardurari garrantzia ematen diotela argi ikusten da: “musculoso”, “indarra”, “mazadísimo”, “tableta”, “gihartsua”, “cuerpo nórdico”, “cachas”... Aurretiko testaren analisia egin ondoren ondorioztatu da ikasleen emakume osasuntsuaren irudi estereotipatua argala eta tonifikaziorik gabekoa dela, beraz 4. irudian agertzen diren definizioak gihardura goraiatzeko, gizonaren irudiari buruzkoa dela suposatuz dezakegu. Lehenengo irudian osasunarekin maiz erlazionatzen duten beste eragile bat elikadura da: “ondo jan”, “fruta jan”, “proteinak jan”, “gutxi jan”... Azkenik, alderdi emozionala

eta psikikoa agertu dela ere esan beharra dago, “sentimenduak”, “autoestimua”, “azkarra” eta “argia” moduko hitzak erabiliz gorputz osasuntsua definitzeko.

“Giharrak”, “kirola” eta “osasuntsua” bi irudietan errepikatzen diren ideiak izan arren, 5. irudian agertzen diren kontzeptuak beste begirada sakonago edo landuago bat erakusten dute, adibidez “iragarkiak”, “photoshopa”, “gezurra”, “makilatzea”, “saltzen” moduko hitzak aipatzen dira gorputzen irudia marketin estrategien bidez baldintzatua dagoela ulertuz eta oraingo ikasleen ikuspuntua ikusizko kulturarekiko kritikoagoa dela argi utziz. Ildo beretik lehenengo saioan agertu ez ziren osasunaren beste estereotipo batzuk aipatzen dira, eta aldi berean ikasleek salatzen dituzte iruditegi estereotipatu horien ezaugarriak beraien asmatutako leloetan: “urte gehiago” (adina, gaztetasuna), “maskulinitatea” (gihartsua), “pisua” (argaltasuna), etab. Azken irudiaren beste ezaugarri bat da estereotipo horien garrantzia murriztu dela parte-hartzaileentzat eta gorputz mota gehiago onartzen dutela, “edozein”, “desberdinak”, “ez du inporta”, “ez dira oztopo” edo “kalterik ez” moduko adierazpenak erabili baitituzte. Beraz, ondorioztatu dezakegu aurrera eramandako saio praktikoaren ostean ikasleek ez dutela soilik haien ikusizko kulturarekiko pentsamendu kritikoa garatu, baizik eta ikerketa honetan parte hartu eta gero beraien gorputz osasuntsuaren iruditegia anitzagoa dela, gorputz osasuntsuen inguruko errealitate zabalago bat ulertzeko gai direla erakutsi baitute.

Ikaslegoarengan aldaketa hau lortu ahal izateko ezinbesteko pisua izan du diziplinarteko proiektu didaktikoa, ikasgai edo ezagutza-arlo bakoitzak bere metodologiaren bidez kontzeptu berriak irakasteko aukera eman baitu. Horregatik ikasgai bakoitzean behatutako emaitzak ere jaso nahi izan dira, lehenengo tutoretzetan bizitakoa, gero Gorputz Hezkuntzako saioetan landutakoa eta azkenik Arteko klaseetan sortutakoa deskribatuz.

Tutoretzetan batez ere hitzen bidezko pentsamendu kritikoa landu nahi izan da, eta horretarako banakako eta taldeko eztabaidak sustatu dira. Saio hauetako gaia publizitate eta marketin-estrategiak izan dira, ikus-entzunezko baliabideen bidez ikasleei ikusizko kultura modu kritiko batean behatzeko ereduak erakutsiz. Ondorioz, parte-hartzaileek tutoretzetan talde handian beraien hausnarketak konpartitu dituzte, hurrengo adibideetan jasotzen direnak bezala: “pertsona normalak erakutsi beharrean modeloak erakusten dituzte kirol-anuntzioetan aurpegi politagoak dituztelako”, “benetako kirolariak jartzen badituzte (iragarkietan), ez dituzte beraien produktuak salduko”, “iragarkien sortzaileek beraien nahi dutena zeu ikustea ikusarazten dizute”, “jendeari gezurrak saltzen diete edo esaten diete diruagatik”, “kirolari ez estereotipatuaren istorioa kontatzea luzeegia da eta telebistako iragarkiak motzegiak. Azkarragoa da gorputz estereotipatuak jartzea”.

Gorputz Hezkuntzako metodologia praktikoa izan da, eta jarduera motorren bidez osasuntsuak diren beste gorputz motak ezagutzea izan da saio hauen helburua. Horretarako, publizitateko kanona betetzen ez duten goi mailako kirolarien ereduak erakutsi zaizkie ikasleei, batez ere gizon eta emakumeen arteko oreka zainduz, aurretiko testan ikusi zen bezala emakume kirolarien eredu eza nabarmena baita parte-hartzaileen artean. Jokojolasen bitartez genero, adin, adimen psikiko edo gaitasun fisikoen estereotipoak apurtzen dituzten kirolarien adibideak ezagutu dituzte, eta ikasleek eredu hauei erreferentzia egiteko erabilitako gorputz adierazpenaren analisia egiterakoan ikusi da ezintasunak edo berezitasunak azpimarratu beharrean, bakoitzaren kirolari ematen ziotela garrantzia, kirolarienganako errespetu handia erakutsiz. Jarduera motorren ostean talde txikietan ikasitakoari buruz hausnartzea eta beraien ondorioak idaztea eskatu zaie.

Testu hauen analisiak erakusten du ikasleen %100ak ados dagoela hurrengo baieztapenarekin: “ezagutu ditugun eredu hauek guztiak gorputz osasuntsua dute, publizitatean erakusten diguten fisikoa ez izan arren”, eta hurrengo argudioak ematen dituzte iritzi hori azaltzeko: “adin handia izan arren, kirol mota horiek egiteko osasuntsu egon behar zara”, “ez daude estereotipoak neskak indartsuak dira eta mutilek makilatu daitezke”, “neska sindrome down daukala eta mutila gurpildun aulkian doa, garuna psikologikoki desberdin daukate baina kirol asko egiten dute”, “hanka edo beso bat faltan izatea aspektuan dauka eragina, ez osasunean”, “herri kirolak egiten dutenak itsusiak eta handiak dira, baina osasuntsu daude kirolariak direlako”, “Lydia Valentin (halterofiloa) bezala Nerea Sorondok (aizkolaria) ere estereotipo femeninoa apurtzen du handia delako”. Beraz, Gorputz Hezkuntzan egindako saioak erabilgarriak izan dira saio hauen helburuak lortzeko, parte-hartzaileek jolasten duten bitartean eredu berriak ezagutu eta barneratu dituztelako, eta horiei buruzko egindako hausnarketak erakusten dute gorputz osasuntsuari buruzko iruditegi anitzagoa dutela orain.

Azkenik, Artearen Hezkuntza ere erabili nahi izan da aurreko helburuetan sakontzeko, eta bide batez lortutako jarrera kritikoa erakusten duten irudiak sortu ahal izateko, hau da, adierazpen grafikoaren bidez ikasleen hausnarketak ikusizko kulturaren parte izan daitezen ere. Hau lortzeko bi jarduera proposatu zitzairen: lehenengoan *doodle bombing* teknika erabiliz kirol-iragarki estereotipatuei kritika egin zieten, horretarako Hattie Stewart moduko emakume artista garaikideak eredutzat hartuz. Bigarren jarduera taldeko proiektua izan zen, eta horretarako ikasleek *collage*-aren bidezko kontrapublizitate kanpaina bat egin zuen Yolanda Dominguez artistaren “Rompe el estereotipo. Supéralo” (2020) proiektuan oinarrituz (ikusi 10.18. eranskina).

Bi saio hauen emaitzak ikusita, ondorioztatu daiteke ikusizko lengoaiak baliabide aproposa izan dela ikaslegoaren pentsamendu eta jarrera kritikoa sustatzeko eta besteen aurrean beraien iritzia partekatu ahal izateko, banakako eta taldeko ekoizpenak egin bait dituzte. Doodle bombing-en kasuan, 10.19. eranskinen ikus daitezkeen ereduetan antzematen den moduan, irudiaren bitartez ikasleek gai izan dira publizitate eta marketin estrategiak identifikatzeko, “photoshop” edo “modeloak” moduko kontzeptuak aipatuz eta irudiaren elementu eraldatuak grafikoki seinalatuz. Bigarren proposamenaren kasuan ikusi da ikasleek gaiarekiko interesa mantentzeaz gain, publizitateari kritika egiteak motibazioa pizten ziela. Adibidez, “Rompe el estereotipo. Supéralo”-ren antzeko kanpaina egitea proposatu zitzaizenean publizitate eredu honi kritika egiteko, parte-hartzaileetako batek ahotsa altxatu zuen zirrararekin esanez: “hori, hori da nik gustuko dudana!”. Ikasleek sortutako kontrakanpainan (10.20. eranskina) ere antzematen da proiektu didaktiko honen bidez garatu duten ikusizko kulturarekiko ikuspuntu kritikoa eta osasunarekiko iruditegi anitza, beraien asmatutako leloetan ikusten den bezala: “Estereotipo maskulinoa apurtzeak nire osasunean kalterik ez”, “Gihar hauek photoshopak apurtzen ditu”, “Gorputz desberdinak osasuntsuak egiten gaituzte”, “Urte gehiago osasun gehiago”, “Muga psikikoak ez dira oztopo kirola egiteko”, “Pisuak ez du inporta, gogoak bai”.

Azkenik, ikasleek kontrapublizitate kanpainako leloak talde handian konpartitu ostean, beraien proposamenak goraiatuz, erabaki zuten taldea txalotzea harro sentitzen zirelako egindako lanaz. Egindako lanaren esangura eta sakontasuna ulertuz, proposatu zitzaizen tutoretza bat erabiltzea talde bezala sortutako kontra-kanpaina eskola osoari erakusteko, horretarako ikastetxeko leku publiko batean kokatuz (10.21. eranskina). Beraien erakusketa prestatzeko proiektuari “6.D estereotipoak apurtzen” izenburua jarri zioten, eta hurrengo kartela idatzi zuten, beste taldeetako ikaskideei irakurri zezaten:

“Kirol iragarkiek gezurra saltzen digutenez, adibidez, kirolariak makilatzen, argi bereziekin, photoshoparekin eta abar., horren kontra egitea erabaki dugu. 6.D-n sortu dugun kontra-kanpaina honetan iragarkien estereotipoak apurtzen gaude. Horrela demostratuko dizuegu iragarkietako kirolariak ez direla izan behar indartsuak, argalak, maskulinoak... eta edozein gorputz osasuntsua izan ahal dela.”

7- ONDORIOAK

Gaur egun inguratzen gaituen ikusizko kulturak orokorrean, eta iragarkiak zehazki, ikasleen iruditegian eragin handia dutela ikusi izan da, hauek duten gorputz osasuntsuen iruditegia publizitateko eredu eta estereotipoekin bat eginez. Osasunaren irudi idealizatu horrek haurtzarotik autoestimuan eta autokontzeptuan eragin handia izan dezake, bizitza osoan zehar ondorio larriak sortuz. Gainera, besteen gorputzak ikusterako orduan, hauek epaitzeko irizpide okerrak eskaintzen dizkigu ikusizko kulturak, ikasleen arteko begirunea arriskuan jarritz. Horregatik, garrantzi handia du ikasleei Lehen Hezkuntzatik publizitate-estrategiak azaltzea, eta horrekiko ikuspuntu kritikoa garatzen laguntzea.

Gorputz osasuntsuaren irudian sakonduz, LHko ikasleek gai honekiko dituzten aurreiritziak identifikatzea lortu da, ikerketa honen helburuetako bat zena. Horrela, ikusi egin da ikasleagoak, komunikabideen kontsumitzaile den heinean, marketin-estrategiak barneratu dituela, publizitateak saltzen digun “gorputz osasuntsua” errepikatuz: Gizonen kasuan, gorputz mesomorfoa (gihartsua) izan behar da, eta neskena berriz ektomorfoa (argala), marko teorikoak ikusi dugun bezala, kirol-iragarkietako neskak benetako kirolariak izan beharrean, modeloak direlako. Beraz, parte-hartzaileen aburuz osasuntsu egotea soilik ektomorfoa edo mesomorfoa gorputzak izan daitezke, eta gorputz endomorfoak kontrari, osasuntsuak ez direla ez gizonen ez emakumeen kasuan.

Generoen ezberdintasunetik gain, lan honen emaitzak erakutsi dituzte ere beste aurreiritzi estereotipatu batzuk, adibidez ikasleen iritziz gorputz osasuntsua izateko estetikak duen pisua, ileari, arropa markari eta aurpegiari garrantzi handia emanez. Esan bezala, aurreiritzien testaren emaitzak frogatu dute ikasleek dituzten emakume kirolarien erreferente eza, eta horrelakoak agertzen diren gutxietan, kirol erritmiko edo artistikoekin lotzen dituztela. Datu hauek lortzeko erabilgaitako metodoa oso erabilgarria izan da, ikerketa honetarako diseinatutako aurretiko testan hitzezko adierazpena eta adierazpen grafikoa erabiltzen baitzen, eta horrela kontraesan esanguratsuak identifikatu ahal izan dira: hitzen bidez ikasleek osasuna estetikarekin erlaziorik ez duela esaten zuten bitartean, irudietan honekiko duten kontraesana ikusi egin da, beraiek margotu eta marraztutako informazioan kirolarien ezaugarri estetikoak maiztasun handiarekin agertu baitira.

Behin ikasleagoaren aurreiritziak identifikatuta, bigarren helburu orokorra kirolaren estereotipo fisikoaren inguruko pentsamendu kritikoa garatzeko, diziplinarteko proposamen didaktikoa diseinatzea zen, ondoren Lehen Hezkuntzako ikasleekin praktikara eramateko eta honen emaitzen analisia egin ahal izateko. Horretarako Artearen Hezkuntza, Gorputz Hezkuntza eta Tutoretza batzen zituen proiektua sortu eta aurrera eraman zen, honen bidez lortutako

emaitzak (hitzezkoak, grafikoak eta gorputz adierazpenezkoak) jasoz eta hauen analisia eginez. Ikerketaren bigarren zati honi dagokionez, pentsamendu kritikoa lantzeko gakoetako bat, abian jarri den hainbat jakintza-arlo desberdinetako esku-hartzearen koordinazio lana izan dela esan daiteke. Azken finean, proposamen didaktikoan erabilitako metodologia ezberdinen analisisiei ezker, konprobatu ahal izan da ikasleek izan duten sakoneko aldaketa beraien pentsamendu kritikoa eta iritzietan landu den gaiarekiko. Ikasgai bakoitzari prozesuaren barne jomuga bat emateaz gain, pentsamendu kritikoa lantzeko helburu orokorrarekin bat egin dutela frogatzea posible izan da, diziplinarteko proiektua sortuz. Azkenean, gai bakar baten lanketa hiru ikasgai ezberdin hauen eskutik, hau da, Gorputz Hezkuntzatik, Artearen Hezkuntzatik eta Tutoretza saioetatik, ikasleen pentsamendua hiru jakintza arlo eta adierazteko bide ikuspuntu ezberdinekin elikatzea suposatuta izan du. Hots, ikasgai batean barneratutako edukiak beste ikasgai batean ikusitakoekin erlazionatzeko eta aplikatzeko gai direla antzeman egin da.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek kontzeptuak hitzen bidez ohituta daudenez, gaitasun hau erabili nahi izan da tutoretzako saioetan pentsamendu kritikoa garatzeko taldeko eztabaiden bidez, umeen ikuspuntuak eta argudioak entzuteko aukera paregabea izanik. Beste alde batetik, Gorputz Hezkuntzako saioetako helburua gorputz adierazpena zein jarduera fisikoa erraminta bezala erabiltzea izan da gorputz eredu ezberdinak barneratzeko. Ikasleek jarduera motorrezko bi ariketekin, aurkeztu diren hamar kirolari alternatiboen ezaugarri fisikoetan sakontzeko gaitasuna izan dutela konprobatu da. Horren adierazle izan dira jarduera hauetan zehar adierazitako keinu, jarrera eta adierazpen fisikoarekin sortutako mugimenduak, zein ostera erakutsi duten ezagutza maila kirolari ez normatiboen inguruan. Gainera, eredu hauen informazioa interesarekin entzun, eman eta jaso izan dute beraiantzat jarduera erakargarri eta dibertigarriak jorratzen ziren bitartean.

Azkenik, Artearen Hezkuntzako saioetan egindako emaitza plastikoen analisiaren bidez beraien aurreiritziek jasan duten aldaketa nabarmenak ikusi izan da. Eredu gutxi eta estereotipatu batzuk izatetik eredu anitzak eta norbanakoaren idiosinkrasia ulertzera pasa dira. Ekoizpen grafikoei esker, kirol iragarkietan ageri diren eredu estereotipatu famatuak, ikasleek erreproduzitzen dituztenak, argazki moldatuak direla eta *photoshopa* edo post-edizio digitalaren eragina dutela ulertu dute. Bide batez, honi kritika egin diote ere, pantailetan eta aldizkarietan ikusten ditugun gorputzak errealak ez direla adierazi dutelarik. Eredu ezezagunak eskaini zaizkienean berriz, emakumeen argazkien kasuan, jakin izan dute identifikatzen hauek modelo profesionalak direla, eta nesken gorputzak ez dela zertan horrela izan behar. Esku-hartzeari amaiera emateko ikasle-taldeak sortu duen kontrapublizitate kanpainan adierazi zuten bezala, gorputz ezberdinek osasuntsu egiten gaituztela ondorioztatu izan dute, eta modu grafikoan eskola osoari erakutsi ere.

Proposatutako helburuetatik haratago hainbat emaitza aipagarri jaso izan dira ikerketaren zehar, hala nola, prozesuaren hasieran egindako galdera eta dinamikekin, ikusi izan da ikasleek daukaten aurreiritziak gorputz osasuntsu bati buruz, hau da, gizartearen iruditegia eta honek erakusten dizkieten estereotipoak oso errotatuta dituztela beraien barnean. Esan bezala, umeez oso barneratuta dauzkate komunikabideen bitartez jasotzen diren kirolari estereotipatuaren kanonen ezaugarriak. Hori dela eta, GrAL honetan konprobatu den bezala, ikasleei ikusizko kulturak erabiltzen dituen marketin estrategiak azalduz gero, hauek gai dira estereotipo horiek identifikatzeko eta publizitate mota honen baliabidea dela ulertzeko. Horrela izanda, lan honetan diseinatutako esku-hartzearen bidez ikusi den moduan, umeei baliabideak emanez gero beraien gorputz osasuntsuekiko duten iruditegia aldatzeko gaitasuna daukate, osasuna ongizate fisikoarekin eta kirola praktikatzearekin erlazionatuz, eta inondik inora pisua, adina edota generoa bezalako ezaugarriekin.

Marko teorikoarekin bat datorren beste emaitza esanguratsu bat umeez daukaten emakume kirolarien eredu eza izan da. Komunikabideetan eta publizitatean soilik gizonetzko kirolari famatuaren ereduak jasotzen dituzte normalean eta emakumeak agertzen direnean berriz, hauek modelo profesional ezezagunak izaten dira. Hau argi antzeman izan da aurretiko testean ikasleek beraien kirol erreferenteak marraztu behar izan dutenean, 21 ikasleetatik soilik hiruk emakume kirolariak irudikatu baitituzte aurretik esan bezala. Baita ere, eredu falten arazoa irudikatu dituzten kirol mota urrien kopuruan agertu da, ia marrazkien erdiak futbolariarenak direlarik (%47,6) eta aipatutako hiru emakumeak dantzariak edo gimnastak dira, hau da, eredu estereotipatuak. Jakin badakigu tradizionalki hezkuntzako arlo guztietan ereduak zein erreferenteak orokorrean gizonak direla eta gaur egungo ikaslearen ardura dela hau aldatzea. Hori dela eta, diseinu didaktiko honetan bereziki zaindu nahi izan da emakumeak izatea erreferenteak lan egiterako orduan. Besteak beste, Gorputz Hezkuntzako alorrean, Lydia Valentin halterofiloa edo Nerea Sorondo aizkolaria eta Artearen Hezkuntzan berriz, Yolanda Dominguez edo Hattie Stewart bezalako artistak ikusteko aukera izan dute eta, barneratu duten seinale, esku-hartze honen amaieran ikasleek emakume hauen lanak eta lorpenak azaltzeko gai izan direla baieztatu daiteke.

Proiektu didaktikoaren emaitzetatik adierazgarrienetariko bat umeez landutako gaiarekiko islatu duten interes handia izan da, azken finean, marketin zein publizitate estrategiak aztertzeak eta kontrapublizitate kanpaina bat sortu ahal izateak, beraiena propioa eginez, berria izan da guztiontzat. Modu berean, esku-hartzearen helburuak eta metodologia ulertzeaz gain, eskolako irakasleei ere material baliagarria eskaini die. Izan ere, ikasle hauen tutoreak, Gorputz Hezkuntza eta Arteko irakasleek behatzaile rola bete dute saioetan zehar, eta umeen erantzunak eta jarrerak ikusteko eta etorkizunean ikasleekin honelako gaiak lantzeko ideiak jasotzeko aukera izan dute ere. Ondorioz, ulertu daiteke ikerketa

honetarako diseinatutako unitate didaktikoa erabilgarria dela eta Lehen Hezkuntzako beste eskoletan ere erabilgarri suertatu daitekeela.

Amaitzeko, GrAL honetan egindako lana ez da soilik izan esku hartze bat diseinatzea eta praktikara eramatea, baizik eta horren aurrean umeei emandako erantzunak entzutea, behatzea, ulertzea eta jasotzea. Ikasleekin pentsamendu kritikoa sustatu ahal izateko, irakaslearen hausnartzeko eta entzuteko gaitasunak ere trebatu behar dira, horrek eskaintzen duen garapena eta ikasketa pertsonala ikertzaile zein etorkizuneko irakasle bezala. Gainera, irakaslearen ardurekin jarraitzeko, esan beharra dago ikusizko kulturak eta bereziki publizitateak eta sare sozialek ikasleengan daukaten eragina eskolarentzat ere arazo bat dela gaur egun, eta hortaz hezkuntzak horren erantzukizuna hartzeko beharrezko ikusten dela. Ikerketa honetan ikusi den bezala, komunikabideen boterea handia da eta honen bitartez erakusten dizkiguten eredu estereotipatuaren aurrean, beste eredu ez-normatibo, anitz eta errealean falta dugu. Hutsune hauek ere eskolak bete ditzake horretarako lanketa egoki bat eginez gero, umeei arlo guztietan beste eredu batzuk erakutsiz, bai Gorputz Hezkuntzan, Artearen Hezkuntzan, Historian, Gizartean, Musikan, etab. Horrela gure ikasle-neskak, ikasle arrazializatuak eta alderdi psikiko edo fisikoak zailtasunak dituzten ikasleak identifikatuta sentitzeko aukera izango dute ere, ikasleok orokorrean ikuspegi aberatsagoa eta besteekiko begirune handiagoa eskuratuz.

8- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Nahiz eta lan hau sortu dudan lehen gradu amaierako lana ez den izan, bai izan dela nire lehen ikerketa akademikoa, non ikerketa metodoa praktikara eraman behar izan dudan. Argi geratu izan zait teoriarik ikasi duguna, gero praktikan aurrera eramatea ez dela hain erreza, hasierako planak oso aldakorak izaten baitira. Aldakortasun honen arazorik esanguratsuenetakoa, edozein Gradu Amaierako Lan batean ohikoa den bezala, denboraren kudeaketa izaten da aurkan dagoen faktore bat. Nire egutegiaren berezitasunak direla eta, ikasturtearen hasieran praktikaldia izan nuen, beraz ikerketa aurrera eramateko aukera ez deuseztatzeko, lan honen zati handi bat denbora gutxian osatu behar izan nuen. Honen ondorioz, ikerketa lagina murriztua jaso izan da, gela bakar batean mugatua geratuz eta emaitza handiagoak jasotzeko aukera galduz.

Aldi berean, erabilitako metodologia eta hein batean, zaila izan da marko teorikoan jasotako teoriak modu praktikokoan eskolako errealitatean erabiltzea, Lehen Hezkuntzako azken ziklora moldatuz. Adibidez, gorputz osasuntsuaren teoriaren aldetik, Somatotipoen teoria alegia, gorputzen irudiak eta hauen osasunaren nondik norako oinarri minimoak izateko ikerketaren hasieran aurkezteko baliagarria izan dela esan daiteke. Nahiz eta hipotesi hau JFKZko graduan ikusi dudan, hezkuntzan aplikatu nahi izan dudan errealitateari zaharkituegia geratu den zalantzak dauzkat. Gainera, kontuan hartzekoa da somatotipoak kirolarien gorputz motak ezberdintzeko baliatu izan zirela jatorriz, nahiz eta gerora populazioari orokorrean aplikatu izan dela teoria hau gorputz mota guztiei doitzuz. Somatotipoen bertsio laburtua (7 ereduetatik 3 erabiltzen duena) erabiltzeak ere egokia izan liteke umeen iruditegian, baina kontrari emaitzak jasotzerakoan detaile gutxiagoarekin egin dela somatu dezakegu.

Esku-hartzearen prestaketa ere konplexua izan da diziplinarteko proposamen hau aurrera eramaterako orduan, izan ere, Lehen Hezkuntzako irakasleak orokorrean ohitura handia daukate programazioak indibidualki diseinatzera edo gehienez jota beraien saileko kideekin. Beraz, lan handia suposatu du hainbat irakasleen artean koordinazioa egitea proiektu hau txertatu ahal izateko ikasgelaren egunerokotasunean. Batez ere, ikasgaien metodologiak eta ordutegiak errespetatzea orden zehatz bat jarraituz hemen aurkeztutako dinamiken jarraikortasun egokia mantendu ahal izateko. Hori gutxi izango balitz, klaseen ordutegiak berak ere eragin handia izan du eguneko saioaren gaian eta aldaketak egitea suposatu ditu, beraz hasierako plangintza behin baino gehiagoetan modifikatu behar izan dira. Izan ere, nahiz eta paperean metodo eta jarduerak ondo zehaztuta egon, praktikan eskolako ezustekoekin eta egun bakoitzean ikasleek dituzten egoera eta jarreretara doitzea ezinbestekoa izan da, ikertzaile roletik prestatutako behaketa sistematikoan ere eragina

izanik. Ondorioz, eranskinetan gehitu den unitate didaktikoa beste eskola batean aurre eramatea posible da, beti ere horren errealitatera moldatzeko aldaketak eginez.

Metodologia ere moldatu behar izan da COVID-19ak eragindako egoeraren arabera, batez ere Gorputz Hezkuntzako saioan egindako ekintzekin. Ikastetxeak sortutako protokoloen ondorioz, umeen taldekatzea mugiezina izan da eta beraien artean gehiegi nahastu gabe aritu behar izan dira aipatutako jolas-jokoetan, hala ere, hauek egoerara moldatzeko gaitasuna eduki da. Artearen Hezkuntzan berriz zailtasunak ez dira hain handiak izan, alabaina, mahaien kokapena taldeen arteko kontaktu eza ahalbidetzen zutelako, baina etengabeen protokoloen menpe egon direlarik.

Emaitzen distortsioan eragina izan duen beste kanpo aldagai batek azken urteotan feminismoaren zein estereotipoen diskurtsoak jasan izan duten gorakada eta moda izan da. Umeek diskurtso hau oso "ikasita" daukatela nabaria da ikastoletan etengabeen jasotzen dituzten klaseak gaiarekin asko baitira. Baina ikusi izan den bezala, askotan ez dute sinisten diskurtsoa eta erreproduzitzen dituzten hitzak soilik zuzentasun jarduteko esaten dituztela antzematen da kasu batzuetan. Nahiz eta helburua bete dela argi geratu izan, egoera honek emaitzetan izan dezakeen eragina kontrolatzea zaila ikusten da. Kalterako izan daiteke etengabeen gai hauen lantzea, hobe izango zen sarritasun txikiagoarekin baino sakontasunez lantzea, hau barneratzeko.

Amaitzeko, aipagarria da hartu diren ahalegin guztiak umeen gurasoak, ikasleak, zein ikastetxeko irakasle eta zuzendaritza taldeak informaturik egoteko eta beraien onarpena jasotzeko egin behar zen ikerketaren inguruan, nahiz eta honek lan handia suposatu izana. Horretarako, alderdi etikoa zaintzea lehenetsi egin da ikerketarekin hasi baino lehen. Proiektua aurrera eraman behar zen ikasgaien irakasleekin hitz egin da jarraitu beharreko metodologia aurkeztuz eta berdina egin da zuzendaritza talderekin gurasoei baimen orriak helarazteko. Gainera, gurasoei sinatu beharreko baimen informatuan azaldu zaie ikerketaren zehar zer egingo zen, nola eta zertarako. Honekin zalantzak izan dutenei telefonoz argitu zaizkie, COVID-19ak sortutako egoera dela eta, ikastolan bertan biltzeko ezinaren aurrean. Guraso guztiek baimenak sinatu izana egoera ondo kudeatu delaren seinale izan daiteke. Gainera, ikasleek ere hasieratik ezagutu izan dutenez ikerketa honen gaia eta helburua, batzuk eskolatik kanpo beraien gurasoekin konpartitu nahi izan dituzte landutako kontzeptuak eta lortutako emaitzak, familia giroan ere hitz egiteko gai interesgarria dela behatuz.

9- BIBLIOGRAFIA

- Acaso, M. (2014). *La educación artística no son manualidades. Nuevas prácticas de la enseñanza de las artes y la cultura visual*. Los libros de la Catarata.
- Acaso, M. eta Megías, C. (2017). *Art Thinking*. Espasa Libros
- Acaso, M. eta Megías, C. (2019). *Reduolution. Hacer la revolución en la educación*. Paidós Educación.
- Agirre-Larizgoitia, A., Madariaga-López I. eta Gutiérrez Ajamil, E. (2020). Prácticas prosumidoras para la creación de una mirada crítica en tiempos hipervisuales. *Tercio Creciente (Monográfico extraordinario II)*, 125-136 or. <https://dx.doi.org/10.17561/rtc.extra2.5730>
- Alcántara, G. (2008). La definición de salud de la Organización Mundial de la Salud y la interdisciplinariedad. *Sapiens. Revista Universitaria de Investigación*, 9. zbk., 93-107 or. ISSN: 1317-5815. Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=41011135004>
- Alvariñas-Villaverde, M. eta López-Villar, C. (2018). Representación de niñas y niños en imágenes de juguetes: ¿el comienzo del cambio?. *Cadernos de Pesquisa*, 48. zbk., 310-329 or. <https://doi.org/10.1590/198053144639>
- Antunez, N., Avila, N. eta Zapatero, D. (2008). *El arte contemporáneo en la educación artística*. Editorial Eneida.
- Arribas, S. eta Nogales, D. (2019). La imagen corporal en la asignatura de Educación física. *Revista Española de Educación Física y Deportes: REEFD*. 424. zbk. 97-112 or.
- Cabañas, M. D., Maestre-López, M. I., & Herrero de Lucas, A. (2009). Introducción de la técnica antropométrica. Método. Medidas antropométricas. Puntos anatómicos. *Compendio de Cineantropometría*. Madrid: CTO Eds, 33-82 or.
- Caceres, M. D. eta Diaz, P. (2008). La representación del cuerpo de la mujer en la publicidad de revistas femeninas. *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 14. Zbk., 309-327 or. ISSN: 1134-1629
- Carter, L. (1996). Somatotipo. K. Norton eta T. Olds (Ed.), *ANTROPOMÉTRICA*. 6. kapitulua, 99-115 or. Biosystem Servicio Educativo.
- Chamorro, V. N. eta Tapia J. F. (2015). El discurso comunicativo en el manejo publicitario de marcas deportivas. Estudio de caso: Adidas y Nike. (Gradu amaierako lana). Universidad Politécnica Salesiana. Carrera Comunicación social. Quito. [UPS-QT07454.pdf](https://ups.edu.ec/ups-qt07454.pdf)
- Civieta, O.F. (2020-12-10). Se triplican los trastornos de la conducta alimentaria en la pandemia: la tercera enfermedad crónica más frecuente entre los adolescentes.

- Business Insider*. <https://www.businessinsider.es/covid-dispara-casos-trastornos-conducta-alimentaria-770759>
- Contreras, O. R., Gil, P., García, M.L., Fernández, J. G. eta Pastor, J. C. (2012). Incidencia de un programa de Educación Física en la percepción de la propia imagen corporal. *Revista de educación*, 357. zbk. 281-303 or. DOI: 10-4438/1988-592X-RE-2010-357-061
- De Pascual, A., Megías, C. eta Morales, E. (2020). Cuestiones comunes en las residencias de artistas en escuelas. E. Morales-en (Ed.) *Esto lo hago yo. Residencias de arte en la escuela*. (1.go edizioa, 163-167 or.) Los libros de la Catarata.
- Domínguez, Y. (2016-04-10). Por qué la publicidad sí afecta a las personas. *HUFFPOST*. https://www.huffingtonpost.es/yolanda-dominguez/por-que-la-publicidad-si-b_9634516.html
- Dominguez, Y. (2017). Yolanda Dominguez. Madrid: <http://yolandadominguez.com/portfolio-category/acciones/>
- Dominguez, Y. (2020). *Rompe el estereotipo. Supéralo*. [Fotografía]. Web orrialdetik berreskuratua: <https://theconversation.com/lo-que-nos-ensena-la-historia-del-arte-sobre-la-apariencia-y-el-genero-149961>
- Domínguez, Y. (2021). *Maldito estereotipo. ¡Así te manipulan los medios y las imágenes!* Penguin Random House Grupo Editorial.
- Eusko Jaurlaritza (2020). Heziberri. *Araudia eta baliabideak*. Hezkuntza Saila. http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/heziberri_eus/
- Gil, M. (2019). Running stereotypes. Un análisis de los estereotipos de género en las campañas de Nike y Adidas. (Gradu amaierako lana). Universidad de Valladolid. Grado en Publicidad y Relaciones Públicas. Segovia. (2021ko Ekainaren 2an). Web orrialdetik berreskuratua: [225143788.pdf \(core.ac.uk\)](https://www.core.ac.uk/files/225143788.pdf)
- González, A. (2015). *Cultura corporal y estereotipos en las fotografías de los libros de texto de Educación Física editados durante la Ley Orgánica de Educación*. (Doktoretza tesia). Vigoko Unibertsitatea, Facultade de Ciencias da Educación e do Deporte. Web orrialdetik berreskuratua: <http://www.investigacion.biblioteca.uvigo.es/xmlui/bitstream/handle/11093/425/Cultura%20corporal%20y%20estereotipos.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Lopez, M., eta Gauli, J. C. (2000). El cuerpo imaginado. *Revista complutense de educación*, 11. zbk, 43-58 or.
- López-Villar, C. & Villaverde, M. A. (2018). Las chicas son fuertes, los chicos tienen ritmo. *Tándem: Didáctica de la educación física*, 60. zbk., 7-12 or.
- MealPlanMagic, 2019. *Somatotype body type*. [Irudia]. (2020ko Azaroaren 6an) Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.mealplanmagic.com/blogs/meal->


[planning/which-somatotype-body-type-are-you-characteristics-and-images-for-men-and-women](#)

- Mesias, J. M. (2019). *Educacion Artistica Sensible*. GRAÓ.
- Moya-Mata, I., Ros, C., Menescardi, C., eta Bastida, A. (2014). Estereotipos corporales en los libros de texto de Educación Física en Educación Primaria. *Habilidad Motriz*, 43. zbk., 25-32 or.
- Nutricion 360. (2019). *Tipos de cuerpo o complexión física – Endomorfo, mesomorfo y ectomorfo*. [Irudia]. (2021ko Ekainaren 2an). Web orrialdetik berreskuratua: <https://nutricion360.es/salud/metabolismo/endomorfo-mesomorfo-ectomorfo-somatotipo-corporal>
- Oliver, D. (2020-04-25). Trastornos alimentarios en niños y adolescentes durante el confinamiento. *El País*. https://elpais.com/elpais/2020/04/19/mamas_papas/1587284749_373590.html
- Pastor-Vicedo, J. C., Gil-Madróna, P., Prieto-Ayuso, A. & González-Víllora, S. (2015). Los contenidos de salud en el área de educación física: Análisis del currículum vigente. *RETOS. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 28. zbk., 134-140 or. [Kontsulta data 2021eko Martxoaren 11an]. ISSN: 1579-1726. Berreskuratuta Web orrialdetik: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=3457/345741428025>
- Pastor-Vicedo, J. C., Sanchez-Oliva, A., Sanchez-Blanchart, J. eta Martinez-Martinez, J. (2019). Estereotipos de género en educación física. *Sport TK: revista euroamericana de ciencias del deporte*. 8. zbk., 23-31 or.
- Racionero, F. eta Castillo, J. L. (2015). Publicidad y deporte: análisis de las estrategias persuasivas de las grandes marcas deportivas. [Fotografía]. Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.efdeportes.com/efd204/publicidad-y-deporte-estrategias-persuasivas.htm>
- Ramírez, G. (2011). Body stereotypes in sport video games covers. Universidad de Sevilla. Departamento de Educación Física y Deporte. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte*, 11. zbk., 407-420 or. Web orrialdetik berreskuratua: https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/39409/Estereotipos_corporales_en_las_portadas_de_los_videojuegos.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Ramírez, G., Piedra de la Cuadra, J., Ries, F. eta Rodríguez, A. R. (2011). Estereotipos y roles sociales de la mujer en el cine de género deportivo. *Teoría de la Educación. Educación y Cultura en la Sociedad de la Información*, 12. zbk., 82-104 or. Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=201022652005>

- Redacción Barcelona. (2020/11/13). Oysho lanza sus primeros conjuntos deportivos de talla grande. *La Vanguardia*. Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.lavanguardia.com/de-moda/moda/20201113/49415414046/oysho-primer-conjunto-deportivo-talla-grande.html>
- Rojas, J. L. (2010). La construcción de las noticias deportivas desde una mirada androcéntrica. De la invisibilidad a los estereotipos de la mujer deportista. *Vivat Academia*, 113. zbk., 122-136 or. Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=525752963008>
- Sanz, J. M. M., Otegui, A. U., Guerrero, J. & Barrios, V. (2011). El somatotipo-morfología en los deportistas. ¿Cómo se calcula? ¿Cuáles son las referencias internacionales para comparar con nuestros deportistas?. *Lecturas: Educación física y deportes*, 159. zbk., 4-21or.
- Silleros, M. (2005). *Teoría de Kinantropometría. Tema 3. El Somatotipo*. Universidad Politécnica de Madrid. Facultad de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte. Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.cafyd.com/doc1sillero05.pdf>
- Táboas, M. I. (2010). Análisis de los estereotipos corporales y de los modelos de actividad física representados en las imágenes de los libros de texto de Educación Física. *Apunts Educación Física y Deportes*. 100. zbk., 88or. Web orrialdetik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=551656926011>
- Táboas, M. I. eta Rey, A. I. (2007). El cuerpo en las imágenes de los libros de texto de educación física: análisis de dos editoriales. *Kronos*. 11. zbk., 10-15 or. Web orrialdetik berreskuratua: https://abacus.universidadeuropea.es/bitstream/handle/11268/3536/kronos_11_3.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Táboas, M. I. eta Rey, A. I. (2011). Los modelos corporales en la actividad física y el deporte: hacia una superación de los estereotipos desde la educación física escolar. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 392. zbk., 99 or. Terrones, A. L. (2018). Pensamiento dominante, educación y medios de comunicación. *Sophia, Colección de Filosofía de la Educación*, 24. zbk., 313-336 or.
- Valdes, A. (2015/02/23). Cuáles son y cómo saber mi tipo de cuerpo. *HSNblog, nutrición, salud y deporte*. <https://www.hsnstore.com/blog/deportes/fitness/tipos-de-cuerpo/>
- Vega S., Barredo D., eta Merchán, A. (2019). Percepción de los comportamientos y patrones corporales asignados a la mujer en publicidad. *Ámbitos. Revista Internacional de Comunicación*, 44. zbk., 162-180 or. DOI: 10.12795/Ambitos.2019.i44.10


ERANSKINAK

10.1- Somatotipo gorputz ezberdinak.




1. Irudia: Somatotipo motak generoka ezberdinduta. (*MealPlanMagic, 2019*).

10.2- Internetek eskaintzen dituen somatotipo estereotipatuak.



2. Irudia: Irudi bilatzaile baten emaitza “*cuerpo mesomorfo*” bilaketaren pantaila-argazkia.

10.3- Somatotipo sexualizatuak.



3. Irudia: Somatotipoen ereduak, emakumeak pose sexualizatuak dituztelarik. (*Nutrición 360, 2019*).

10.4- Baimen Informatua.

CONSENTIMIENTO INFORMADO

Le informamos de que el aula 6º D del Centro Educativo Zabalgana participará en un proyecto de investigación como parte de un Trabajo Fin de Grado, siendo el tema de estudio los estereotipos físicos, salud y del deporte en los medios de comunicación, y su influencia en la infancia.

- Título del Proyecto: Análisis de estereotipos físicos y deportivos en la infancia.

- Investigador Principal: Galder Perez de Pipaon.

- Facultad: Educación y Deporte, UPV-EHU.

- Ámbito de realización: CEIP Zabalgana HLHI, aula 6º D.

- Duración del proyecto: noviembre-diciembre 2020.

El objetivo principal de este estudio consiste en **identificar los estereotipos físicos en torno al deporte y la salud que fomentan los medios publicitarios**, así como la influencia que ejercen en la infancia. Además, como parte de este estudio, también se llevarán a cabo unas **sesiones prácticas basadas en juegos dinámicos de Educación Física** y en la **realización de prácticas artísticas** con el objetivo de **fomentar el pensamiento crítico del alumnado**, abordando para ello los recursos de marketing de la imagen publicitaria, los estereotipos físicos y la idealización corporal que exaltan los medios de comunicación. Los resultados del estudio se extraerán a partir de los trabajos teórico-prácticos que los participantes realicen durante estas sesiones, tales como las propias creaciones plásticas o los debates que se generen durante los juegos.

Por lo tanto, declaro que:

- He sido informado/a de que la participación de mi hijo/a en este proyecto forma parte de su programación escolar y de que la intervención será supervisada conjuntamente por el Centro Educativo Zabalgana y la Facultad de Educación y Deporte de la UPV-EHU.
- Del mismo modo, doy permiso para que las producciones plásticas y textuales producidas por mi hijo/a formen parte de este estudio, habiendo sido informado/a de que toda la información aportada por el alumnado será tratada bajo el criterio de confidencialidad, no se solicitará ningún dato personal de los participantes y se asegurará su anonimato. También doy mi consentimiento para que los resultados de investigación extraídos de este proyecto sean incluidos en el Trabajo Fin de Grado previamente mencionado y puedan ser usados en contextos académicos y divulgativos respetando siempre la confidencialidad de los participantes.

Mediante este documento, yo D./D^a _____ con DNI _____ doy mi consentimiento para que mi hijo/a _____ participe en dicha investigación.

En..... a.....dedel.....

Nombre del/l tutor/a legal

Firma del/la tutor/a legal

BAIMEN INFORMATUA

Zabalgana Ikastetxeko 6.D ikasgelak Gradu Amaierako Lan baten ikerketa proiektu batean parte hartuko duela informatzen zaitugu, ikerkuntzaren gaia estereotipo fisikoak, osasunekoak eta kirolekoak komunikabideetan eta beraien eragina haurtzaroan izanik.

- Proiektuaren Izenburua: Estereotipo fisiko eta kirolen analisia haurtzaroan.
- Ikertzaile Printzipala: Galder Perez de Pipaon.
- Fakultatea: Hezkuntza eta Kirola, UPV-EHU.
- Gauzatze Esparrua: CEIP Zabalgana HLHI, 6.D ikasgela.
- Proiektuaren Iraupena: 2020ko Azaro-Abendua.

Ikerketa honen helburu printzipala **haurtzaroan kirolaren inguruko estereotipo fisiko eta osasun arlokoak iragarki-bideetatik sustatuak identifikatzea** izango da, halaber, hauek eragiten duten influentzia umeengan. Horretaz gain, ikerketa honen parte bezala, **Gorputz Hezkuntzako saio praktikoak, jolas dinamikoekin, eta praktika artistikoen burutzea ikaslegoaren pentsamendu kritikoaren sustapena bultzatzeko** helburuarekin aurrera eramango dira. Honetarako, iragarkietako irudien marketing baliabideei, estereotipo fisikoei eta komunikabideek gorputz-idealizazioaren goraiatzeari ekinez. Ikerketaren emaitzak, partaideek saio hauetan zehar egindako lan teoriko-praktikoetatik aterako dira, hala nola, eratzeko plastikoak edo jolasetan zehar sortzen diren eztabaidak.

Hori dela eta, adierazten dut hurrengoak:

- Nire seme-alabaren parte-hartzea proiektu honetan eskola-programazioaren parte dela zein, esku-hartzea Zabalgana Ikastetxea eta UPV-EHU-ko Hezkuntza eta Kirola fakultatearekin batera ikuskatua egongo dela informatu nautela.
- Modu honetan, nire seme-alabak sortutako emaitza plastikoak zein testualak ikerketa honen parte izateko baimena ematen dut, ikaslegoak eskainitako informazio guztia konfidentzialtasunaren irizpideen barne tratatuko dela, ez zaiela eskatuko inongo datu pertsonalik eta beraien anonimatua ziurtatzearen berri jaso dudala. Baita ere, proiektu honetatik ateratako ikerketa emaitzak aurretik aipatutako Gradu Amaierako Lanaren parte izateko eta testuinguru akademikoetan zein dibulгатzailleetan erabiliak izateko nire oniritzia ematen dut, beti ere, partaideen konfidentzialtasuna errespetatuz.

Dokumentu honen bidez, nik _____ jaun/andreak,
_____ NAN zenbakiarekin, baimena ematen dut nire seme-alabak
_____ aipatutako ikerketan parte-hartu dezan.

..... koren.....(e)an,en

Tutore legalaren izena

Tutore legalaren sinadura

10.5- Esku-hartzearen diseinua.

ESKU-HARTZEA: GIZARTEKO KANONAK APURTZEN OSASUNAREN ALDE	
Ikasgaiak	Diziplinarteko sekuentzia didaktikoa: <ul style="list-style-type: none">- Gorputz Hezkuntza (2 jarduera)- Artearen hezkuntza (2 jarduera)- Tutoretza (2 jarduera)
Gaitasun orokorrak:	<ol style="list-style-type: none">1- Taldeko eztabaiden zein banakako lanaren bidez pentsamendu kritikoa garatzea, norberaren iritzia eratu eta argudiatu ahal izateko. (Autonomia eta ekimenerako gaitasuna)2- Ikaskideekiko harremanen bitartez besteekiko begirunea trebatzea, gelako bizikidetzaren sustatzeko. (Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna).3- Joko-jolasen zein simulazioen bidez, jarduera fisiko osasuntsu baten garrantzia ulertzea eta barneratzea, gorputzaren ongizatea eta zainketa lortzeko. (Osasun kulturarako gaitasuna).4- Klasean sortutako produkzio plastikoaren bitartez irudiaren bidezko komunikazioa ulertu eta erabiltzea, norberaren ideiak lengoia ezberdinen bidez adierazten ikasteko.

	<p>(Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna).</p> <p>5- Iragarki-ereduen behaketen bidez ikusizko kulturaren estereotipoak identifikatzea, hedabideetako baliabide bisualak identifikatzen ikasteko. (Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna).</p>
--	--

1. SAIOA (Tutoretza): “Gure estereotipoak topatuz”		
DESKRIBAPENA		
<p>Gaia aurkezteko galdetegi bisual bat pasatuko zaie ikasle bakoitzari. Bete ostean, gaiaren sarreran sartuko gara, talde handian azalduko dugu aurreiritzi zein estereotipoak zer diren eta eztabaida sortuko dugu honen inguruan.</p>		
EDUKIAK		
KONTZEPTUALAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Gorputz osasuntsuei buruzko informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaldu)</p> <p>Kirol-estereotipo fisikoei buruzko informazioa</p>	<p>Eztabaida irekiak funtzionamendu sistema (txandak, kontra-argudioak...)</p> <p>Informazio eta irudien konparaketak</p>	<p>Parte hartzea</p> <p>Iritzien argudiaketa</p> <p>Kooperazioa</p> <p>Ikaskideekiko begirunea</p> <p>Gaiarekiko motibazioa eta interesa</p>

deseraiki eta begirada zabaldu		
METODOLOGIA		
TEKNIKAK	DENBORA ETA METERIALAK	ESPAZIOA ETA TALDE MOTA
Galdetegia eta eztabaida	Denbora: 45' Materialak: Galdetegi orria, ordenagailua, arbela interaktiboa	Espazioa: Ikasgela Talde mota: Banaka eta gero talde handian
EBALUAZIOA		
GAITASUN ZENBAKIA	EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1 eta 2	Galdetegia Behaketa taula.	Jarrerako edukiak

2. JARDUERA (Artearen Hezkuntza): “Publizitatearen tranpak”

DESKRIBAPENA

Hainbat kirol-iragarki estereotipatu banatuko zaie taldean aztertzeko. Ondoren publizitatearen baliabide batzuk azalduko zaie zeinekin estereotipo fisikoak areagotzen diren. Hauek irudiaren bidez apurtzeko, Doodle Bombing teknika erabiliko dute iragarki estereotipatu horiek eraldatzeko.

EDUKIAK

KONTZEPTUALAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Estereotipo-fisikoengatik inguruko kontzeptuak.</p> <p>Publizitatearen ikusizko baliabideak.</p> <p><i>Doodle bombing</i> teknika.</p>	<p>Ikus-entzunezko materiala aztertu.</p> <p><i>Doodle bombing</i> teknikaren erabilera kritikoa.</p> <p>Iragarkien irudienganako begirada kritikoa.</p>	<p>-Parte Hartzea.</p> <p>-Iritzien argudiaketa.</p> <p>-Kooperazioa.</p> <p>-Ikaskideekiko begirunea.</p> <p>-Gaiarekiko motibazioa eta interesa.</p>

METODOLOGIA

TEKNIKAK	DENBORA MATERIALAK	ETA	ESPAZIOA ETA TALDE MOTA

Ikus-entzunezko eredu behaketa eta <i>Doodle bombinga</i> .	Denbora: 50 Materialak: Iragarkien fotokopiak, errotulagailuak, ordenagailua eta arbela elektronikoa.	Espazioa: ikasgela Taldea mota: Talde handian eta banaka.
EBALUAZIOA		
GAITASUN ZENBAKIA	EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1, 2, 4 eta 5	Irudi plastikoaren emaitza Behaketa taula.	<i>Doodle bombingaren</i> kritikotasun maila Teknikaren erabilera Ideen adierazpen grafikoa Denboraren kudeaketa Jarrerako edukiak
3. JARDUERA (Gorputz Hezkuntza): “Kirol erreproduktzioa 1”		
DESKRIBAPENA		
Taldea handian beroketa egin ondoren, taldeka kokatuko dira eta talde bakoitzari bana hainbat kirolarien informazioa emango zaie eredu bezala, estereotipo fisikoekin bat ez datozenak, osasuntsuak direnak eta errendimendu altukoak direnak. Gero talde handian, “Egunon errege jauna” jolasaren moldaketa batean arituko dira kirolari bakoitzaren izena eta		

mimikaren bidez hauek praktikatutako kirola lotzeko. Ondoren, kirol hauek praktikara eramango dituzte ahal den heinean.

EDUKIAK

KONTZEPTUALAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Kirolari ez-estereotipatuen azterketa</p> <p>Gorputz-eredu alternatiboen garrantzia</p> <p>Talde lanaren garrantzia eta honen sustapena</p>	<p>Gorputz adierazpeneko ekintzak</p> <p>Kirolen edo diziplinen erreprodukzioa</p> <p>Gorputzaren gaitasun motorrak ideiak adierazteko</p> <p>Aurkaritza-kolaboraziozko egoeretan ematen diren estrategiak</p>	<p>Jolas-jokoan parte hartzea</p> <p>Iritzien argudiaketa</p> <p>Kooperazioa</p> <p>Ikaskideekiko begirunea</p> <p>Gaiarekiko motibazioa eta interesa</p>
METODOLOGIA		
TEKNIKAK	DENBORA ETA METERIALAK	ESPAZIOA ETA TALDE MOTA
<p>Jolas-jokoa, Beroketa, Beroketa-jolasa, mimika eta kirol/disziplina ezberdinak</p>	<p>Denbora: 50'</p> <p>Materialak: Kirolarien argazkia eta azalpena, kirol hauetarako materiala,</p>	<p>Espazioa: Polikiroldegia</p> <p>Talde mota: Talde handia, talde txikia eta berriz talde handia.</p>

	desinfektantea eta papera	
EBALUAZIOA		
GAITASUN ZENBAKIA	EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1, 2 eta 3	Behaketa taula.	Jardueraren exekuzio maila Ariketen ildoak jarraitzea Jarrerako edukiak
4. JARDUERA (Gorputz Hezkuntza): “Kirol erreprodukzioa 2”		
DESKRIBAPENA		
METODOLOGIA		
<p>Talde handian borobil batean, beroketa egin ondoren, taldeka kokatuko dira eta aurrekoan bezala, talde bakoitzari beste kirolari bana estereotipo fisikoekin betetzen ez dutenak, eredu osasuntsuak direnak eta errendimendu altukoak emango zaizkie. Ondoren, talde bakoitzak prestatuko du kirolari bakoitzeko “estatua” bat, hau da, talde osoak kirolari horren praktikaren zati bat imitatu beharko dute. Beste taldeek detaile guztietan erreparatu beharko dute eta hurrengo pausua zein izango zen asmatu eta “eskulturizatu”. 4 eskultura/sekuentzia jarrai eta ezberdin izan arte. Ondoren kirol hauek praktikara eramango dituzte ahal den heinean.</p>		

EDUKIAK		
KONTZEPTUALAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Kirolari ez-estereotipatuen azterketa</p> <p>Gorputz-eredu alternatiboen garrantzia</p> <p>Talde lanaren garrantzia eta honen sustapena</p>	<p>Gorputz adierazpeneko ekintzak</p> <p>Kirolen edo diziplinen erreprodukzioa</p> <p>Gorputzaren gaitasun motorrak ideiak adierazteko</p> <p>Aurkaritza-kolaborazioko egoeretan ematen diren estrategiak</p>	<p>Parte hartzea</p> <p>Iritzien argudiaketa</p> <p>Kooperazioa</p> <p>Ikaskideekiko begirunea</p> <p>Gaiarekiko motibazioa eta interesa</p>
TEKNIKAK	DENBORA ETA METERIALAK	ESPAZIOA ETA TALDE MOTA
<p>Ia-Jolasa, Beroketa, Beroketa-jolasa, mimika, kirol/ disziplina ezberdinak</p>	<p>Denbora: 50'</p> <p>Materialak: Kirolarien argazkia eta azalpena, kirol hauetarako materiala, desinfektantea eta papera</p>	<p>Espazioa: Polikiroldegia</p> <p>Talde mota: Talde handia, talde txikia eta berriro talde handia.</p>
EBALUAZIOA		
GAITASUN ZENBAKIA	EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1, 2 eta 3	Behaketa taula.	Jardueraren exekuzio maila Ariketen ildo jarraitzea Jarrerako edukiak
------------	-----------------	---

5. JARDUERA (Artearen Hezkuntza): “Kontrapublizitatea sortzen”

DESKRIBAPENA

Deskribapena: Talde osoaren artean kontrapublizitate kanpaina egingo da, kirolarien irudi fisiko eta gorputz osasuntsuari buruzko beste eredu batzuk ikusarazteko helburuarekin. Horretarako Yolanda Dominguezen “El Corte Ingles”-eko kontrapublizitate kanpaina (2020) erakutsiko zaie eredu bezala, eta aurreko saioetan aztertutako kirol-iragarki estereotipatuen aurkako irudiak sortuko dituzte *collage*aren bitartez.

EDUKIAK

KONTZEPTUALAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
Gorputz osasuntsuen irudi aniztasuna. Arte garaikideko baliabideak (collage, kontrapublizitatea). Ikusizko kulturaren lengoia (publizitatea)	Ikus-entzunezko materiala aztertu <i>Collage</i> teknikaren erabilera kritikoa Iragarkien irudienganako hausnarketa eta eraldaketa plastikoa	Parte hartzea Iritzien argudiaketa Kooperazioa Ikaskideekiko begirunea Gaiarekiko motibazioa eta interesa

eta komunikabideen irudiak)		
METODOLOGIA		
TEKNIKAK	DENBORA ETA METERIALAK	ESPAZIOA ETA TALDE MOTA
<i>Collage</i> eta kontrapublizitatea	Denbora: 50 minutu Materialak: Kirolari ez estereotipatuen eta estereotipatu iragarkien fotokopiak, guraizeak, pegamentua, errotulagailuak, folioak	Espazioa: Ikasgela Talde mota: lehenengo banaka eta gero taldeka
EBALUAZIOA		
GAITASUN ZENBAKIA	EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1, 2, 4 eta 5	Irudi plastikoaren emaitza Behaketa taula.	<i>Collage</i> aren kritikotasun maila Teknikaren erabilera Ideien adierazpen grafikoa Denboraren kudeaketa Jarrerako edukiak

6. JARDUERA (Tutoretza): “Esperientzia konpartitu”

DESKRIBAPENA

Gai honi amaiera emateko eta esku-hartzea ixteko, ondorio-saio bat egingo da. Honetan beste galdetegi bisual bat pasatuko zaio ikasle bakoitzak bere iritzi pertsonala emateko. Ondoren, talde handian aurreko 5 saioetan landutako alderdirik esanguratsuenak birakatuko dira, euren esperientziak konpartituz eta egindako *doodle bombing*-ak eta *collage*ak gelako pantailan erakutsiz. Amaitzeko, ikasleek azken saioan egindako kontrapublizitate kanpainaren irudiak eskolako toki publiko batean kokatuko dituzte, euren lana eskola-komunitateari erakusteko.

EDUKIAK

KONTZEPTUALAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Gorputz osasuntsuei buruzko ikuspuntu kritikoa</p> <p>Publizitatearen kirol-estereotipo fisikoei buruzko hausnarketa</p> <p>Arte garaikideko baliabideak (kontrapublizitate kanpaina)</p>	<p>Norberaren iritzia eman eta argudiatzea</p> <p>Egindako lanari buruzko ondorioak eta hausnarketak</p> <p>Eskola-komunitateari bideratutako erakusketa (kontrapublizitate kanpaina)</p>	<p>Parte Hartzea</p> <p>Iritzien argudiaketa</p> <p>Kooperazioa</p> <p>Ikaskideekiko begirunea</p> <p>Gaiarekiko motibazioa eta interesa</p>

METODOLOGIA

TEKNIKAK	DENBORA ETA METERIALAK	ESPAZIOA ETA TALDE MOTA
Galdetegi bisuala Eztabaida irekia Egindako irudien erakusketa	Denbora: 45' Materialak: Galdetegi orria, ordenagailua, arbela interaktiboa, ikasleek egindako irudi digitalizatuak eta <i>collageak</i> .	Espazioa: Ikasgela eta eskolako leku publikoa. Talde mota: Banaka eta gero talde handian
EBALUAZIOA		
GAITASUN ZENBAKIA	EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1 eta 2	Behaketa taula.	Jarrerako edukiak

2. Taula: 6.D mailarekin aurrera eraman de Unitate Didaktiko osoa.

10.6- Unitate Didaktikoan aurrera eraman den ikerketaren laburpena.

SAIO ZENBAKIA	ARLOA (Ikasgaia)	JARDUERA	HELBURUAK	IKERKETA TRESNAK
1	Tutoretza	Irudien bidezko test bat bete (banaka) eta gaiari buruzko <i>brainstorming</i> bat egitea (talde handian).	Gorputz osasuntsuei buruzko ikasleen aurreiritziak eta iruditegi estereotipatuak identifikatzea.	1) Aurretiko testa. 2) Behaketa koaderno eta ikus-entzunezko baliabideak.
2	Artearen Hezkuntza	Kirol estereotipoen inguruan ikusizko kulturaren analisia egitea (talde handian) eta teknika plastikoen bidez estereotipoen salaketa kritikoa egitea (banaka).	Publizitatearen estrategiak azaltzea eta hauek aztertzea, ikaslegoarengan kirol estereotipoei buruzko begirada kritikoa sustatzeko.	1) Ikasleen adierazpen grafikoa. 2) Behaketa koaderno.
3	Gorputz Hezkuntza	Ikusizko kulturaren estereotipo fisikoak betetzen ez dituzten goi mailako kirolariak ezagutzea (talde txikitan eta talde handian).	Kirolariei buruzko ikasleen iruditegia zabaltzea eta eredu ez estereotipatuak ezagutzea.	1) Ikasleen gorputz adierazpena. 2) Ikasleen idatzizko adierazpena. 3) Behaketa koaderno eta ikus-entzunezko baliabideak.
4	Gorputz Hezkuntza	Aurreko saioan ikasitako kirolari ez estereotipatuen inguruko joko-jolasak egitea, hauen lorpenak eta gaitasunak goraipatuz (talde handian).	Mugimenduaren bidez osasun fisikoari buruzko hausnarketa egitea, ezaugarri estetikoiei garrantzia kenduz.	1) Ikasleen gorputz adierazpena. 2) Behaketa koaderno eta ikus-entzunezko baliabideak.


5	Artearen Hezkuntza	Artista garaikide baten kontrapublizitate kanpaina batean oinarrituz, ikasleek kontrakanpaina sortzea (talde handian). Teknika plastikoen bidez iragarki kritikoak sortu (talde txikietan), aurreko 2 saioetan ezagututako kirolari ez normatiboak protagonista bihurtuz.	Publizitatearen eta kirolaren ikus-kulturaren aurrean jarrera kritikoa erakustea. Adierazpen grafiko eta bisuala erabiltzea euren iritzia eta ikuspuntuak partekatzeko.	1) Ikasleen adierazpen grafikoa. 2) Ikasleen idatzizko adierazpena. 3) Behaketa koadernoak.
6	Tutoretza	Eskolako pasiloan beraien kontrapublizitate kanpaina kokatzea, eta azalpen moduan testu bat idaztea denen artean (<i>brainstorming</i>), aurreko 5 saioetan hausnartutakoa eta ondorioztatua azalduz.	Ikaslegoan hausnarketa eta taldeko autoebaluazioa sustatzea, gai honen inguruan ikasitakoaz ohartzeko eta eskolan erakusteko.	1) Ikasleen idatzizko adierazpena. 2) Behaketa koadernoak eta ikus-entzunezko baliabideak.

3. Taula: 6.D mailarekin aurrera eraman de Unitate Didaktikoaren laburpena.

10.7- Aurretiko testa.

GORPUTZ OSASUNTSUAK

1- Zure ustez, ikusten dituzun hiru gorputzetatik zein da osasuntsuena?
(Borobildu bat talde bakoitzetik)



2- Koloreztatu itzazu termometro bakoitza 1tik 5ra (1, ez du zerikusirik eta 5, oso garrantzitsua da) zure ustez gorputz osasuntsu batek izan behar dituen ezaugarriekin.

•Altua izan behar da.



•Argal egon behar du.



•Gihartsua izan behar da.



•Zaindua estetikoki (makilatua, orraztuta, kremak...).



•Beste ezaugarri bat aipatu: _____



3- Gustuko duzun kirolari famatu bat marraztu ezazu ahalik eta xehetasun gehien emanez.


• Kirola:

• Kirolariaren izena:


A large rounded rectangular box for drawing and writing.

10.8- Ikasleen erantzunak gorputz osasuntsuen inguruan generoka banaturik.

Nesken gorputz osasuntsuena
21 respuestas




Mutilen gorputz osasuntsuena
21 respuestas



10.9- Ikasleen erantzunak gorputz osasuntsuak "altuak" izateko beharraz.


Altua izan behar da
21 respuestas



10.1- Ikasleen erantzunak gorputz osasuntsuak “argalak” izateko beharraz.

Argal egon behar du


21 respuestas



10.11- Ikasleen erantzunak gorputz osasuntsuak “gihartsuak” izateko beharraz.


Gihartsua izan behar da

21 respuestas




10.12- Ikasleen erantzunak gorputz osasuntsuak “estetika zaindua” izateko beharraz.

Estetikoki zaindu behar da
21 respuestas



10.13- Ikasleek marraztutako ereduetan agertutako kirolak ehunekoetan.


Aukeratutako kirola
21 respuestas



10.14- Ikasleek marraztutako erduetan agertutako kirolarien generoa ehunekoetan.

Kirolariaren generoa


21 respuestas



10.15- Ikasleek marraztutako erduetan nabarmendutako ezaugarriak.


Marrazkian nabarmendutako ezaugarriak

20 respuestas




10.16- Ikasle batek marraztutako eredu.

3- Gustuko duzun kirolari famatu bat marraztu ezazu ahalik eta xehetasun gehien emanaz.



10.18- Yolanda Dominguez-en “Rompe el estereotipo. Supéralo” kontrapublizitate kanpaina.

A) Irudi originala:



B) Kontrapublizitate kanpainako mosaikoa:



10.19- Ikasleen Doodle Bombing ereduak.



10.20- Ikasleen *Collageak* kontrapublizitate kanpaina propioa eginez.

A) Jatorrizko irudia:



B) Ikasleek sortutako kontrapublizitate kanpainaren mosaikoa:



10.21- Ikasleen kontrapublizitate kanpainaren emaitza esposaketan.

